



GRADU AMAIERAKO LANA

**Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren kontserbazioaren eta
iraunkortasunaren sustapena**

Gradua: Zuzenbidea
Ikasturtea: 2021-2022
Lanaren egilea: Irati Lizarralde Guerra
Zuzendaria: Jasone Urkola Iriarte

**URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA
IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA**

**URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA
IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA**

AURKIBIDEA

LABURDURAK	5
I. OCEANi3 ZERTAN DATZA.....	7
II. UNESCO-ren MaB PROGRAMA ETA BIOSFERA ERRESERBAK.....	10
A. MAB programa eta Biosfera Erreserben kontzeptua eta izendapena eta Urdaibai MABeko Biosfera Erreserba moduan.....	10
B. Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren egoera gaur egun.....	13
III. EUROPAR BATASUNAK ERAGIN DITUEN AZKEN EKIMEN ETA KORRONTEAK.....	14
A. Europako Bauhaus Berriaren Ekimena	15
B. Europako Paktu Berdea.....	17
C. Europako Bauhaus Berriaren Ekimenaren eta Europako Paktu Berdearen alderaketa eta harremanak.....	19
D. Ekonomia Urdinaren kontzeptua eta Ekonomia Zirkularraekiko duen estutasuna.....	22
E. Ekonomia Zirkularreko Hondakinen eta Lur Kutsatuen legeak Europako Zuzenbidearekin duen lotura.....	28
IV. ESPAINIAKO ESTATU MAILAN ERAGINDAKO ARAU-ALDAKETAK.....	29
A. Arkitektura kalitatearen lege proiektua eta bere ekarpena.....	29
B. Ekonomia ziruklarreko hondakinen eta lur kutsatuen legea eta ingurumenaren kontserbaziorako eskaintzen dituen baliabideak.....	35
C. Natura Ondarea eta Biodibertsitatea babesteko lege estatala Euskadiko Natura Ondarea babesteko legearen oinarri.....	41
V. EAEN INGURUMEN ARLOAN ONARTU BERRIAK DIREN ARAU-XEDAPENAK.....	46
A. Euskadiko Natura Ondarea babesteko legea.....	46
B. Euskadiko ingurumen-administrazioari buruzko legea.....	52
VI. URDAIBAI BIOSFERA ERRESERBARI BURUZKO ARAUDIA	55
VII. LANAREN AZKEN ONDORIOAK.....	63
A. Azken gogoeta.....	63
B. Nire ekarpenak.....	64
VIII. BIBLIOGRAFIA JURIDIKOA.....	68

**URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA
IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA**

IX.	BESTELAKO DOKUMENTUAK ETA BALIABIDE ELEKTRONIKOAK	68
	A. Dokumentuak	68
	B. Baliabide elektronikoak	69
X.	ARAUDIA	70
XI.	JURISPRUDENTZIA	71

**URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA
IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA**

LABURDURAK

AAEE Autonomia Erkidegoa

AG Auzitegi Gorena

BOE Boletín Oficial del Estado; Estatuko Aldizkari Ofiziala

COM Comunicación, komunikazioa

CSCAE Consejo Superior de los Colegios de Arquitectos de España; Espainiako Arkitekturen Kolegioko Kontseilu Nagusia

EAE Euskal Autonomia Erkidegoa

EHAA Euskadiko Agintaritza Aldizkaria

IEZ Ingurugiroa eta Zuzenbidea Aldizkaria

JESEGE Jarduera Sozioekonomikoen Egokitzaren eta Garapenerako Egitaraua

MaB Man and the Biosphere, Gizakia eta Biosferak programa.

PADAS Programa de Harmonización y Desarrollo de Actividades Socioeconómicas

TSJPV Tribunal Supremo de Justicia del País Vasco; Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Gorena

UNESCO Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura; Nazio Batuen Kultura, Zientzia eta Hezkuntza Sustatzeko Antolakuntza

**URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA
IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA**

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

I. OCEAN i3 ZERTAN DATZA

Ocean i3, disziplina, kultura eta unibertsitate ezberdinetako ikasleen parte hartzearen laguntzaz, ekonomia urdinerantz zuzendutako proiektua da.¹ Bertan, Euskal Herriko Unibertsitate publikoko (UPV/EHU) eta Bordeleko Unibertsitateko (*Université de Bordeaux*) gradu ezberdinetako ikasleek parte hartzen dute, Euskal Herriko eta Akitaniako kostaldean plastikoen ondorioz sortzen den kutsadurari konponbide bat ematera bideratuz beren ikerketa eta proiektuak.

Ocean i3-ren lan metodoa, erronka bera betetzeko asmoa duten disziplina ezberdinetako ikasle eta irakasleak bilduz taldeak osatuz hasiko da. Gero, taldekideak hilean behin Workshop izeneko bileretan bildu beharko dira. Bertan, agente sozial batzuek taldeei beren erronkak betetzea errazagoa izateko asmoz erronka batzuk zuzenduko dizkiete, modu honetara, talde bakoitzak kostaldeko ekonomia urdinaren sektorean jarduten duten entitate publiko eta pribatuekin elkarlanean arituz.

Workshop-ak eleanitzak izango dira, kide bakoitza eroso sentitzen den hizkuntzan adieraz daiteke eta entzule guztiek uler ahal izateko itzultzaile lanaz arduratuko diren Itzulpengintza Graduko kideak egongo dira presente. Horrez gain, bilerak modu birtualean (Gather, Oktonine eta beste hainbat plataforma erabiliz) zein modu fisikoan egin ohi dira.

Ocean i3 izena, ikaskuntza, iraunkortasuna eta ikerkuntza hitzetatik dator. Ingurumen eta gizarte arloan oinarrituz, hiru hitz horiek izango baitira proiektuaren objektu. Modu honetara, workshopetan burutzen diren jarduerak eta eragileek proposatutako erronkak, garapen iraunkorraren helburu ezberdinetan oinarritzen dira: pobrezia eta gosearen amaieran, osasun eta ongizatean, kalitatezko hezkuntza eta genero berdintasunaren sustapenean, ur eta energia garbiaren eskurapenean, lanpostu duin eta ekonomiaren garapenean, industria eta azpiegituren berrikuntzetan, desoreken murriztapenean, klimaren aldeko jardunetan, itsas bizidunen eta lurreko animalien babesnean, bake eta justiziaren eskurapenean, produkzio eta kontsumo metodo iraunkorrak lortzean eta hiritarren iraunkortasunean.

¹ Ocean i3 webgune ofiziala: <https://oceani3.com/que-es-ocean-i3/>

**URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA
IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA**

Arestian esan bezala, proiektua ekonomia urdinerantz dago zuzendua, zeinak ekosistema naturalen jokabideak imitatzea duen ideia nagusitzat. Hau da, hondakinak lehengaietan transformatuz berrerabili eta ekonomian birsartzeko helburua du. Honela, ekonomia urdina mundu mailan zabaltzen ari da, lehia eta hazkuntza eremuetan aukera berriak ematen dituen espazio gisa. Euskadi eta Akitaniaren kostaldea 896km-tan neurtzen da, beraz ukaezina da Europa mailan ekonomia urdinaren kooperazio lanetarako eremu oso garrantzitsua dela.

Aurten, agente sozialek taldeei proposatutako gaiak erronka hauetan banatu dira:

Natura eta giza inpaktua	Kirol arduratsu eta kirol jasangarria aztertzea alde batetik, eta, erkidegoetatik eta erkidegoetara koaktibatzekeo erronka ditugu hemen.
Hondakinak	Itsasoaren kutsadura gure ibaien bitartez ezagutzea eta irtenbideak aurkitzea aztertuko du erronka honek.
Ekoizpen zikloa eta kontsumoa	Urdaibaiko Biosfera Erreserba, plastikorik gabeko gunean bihurtzean datza erronka hau, eremu horretan aukera ekonomiko berriak eta ekonomia zirkularreko aukera berriak sortuz.
Uraren zikloa	Gipuzkoako arroetatik itsasoa zaintzen eta babesten duten ergilea sortzea du aburu, baita ere, Pasaiako badian zabalduetako itsas hondakinen azterketa eta segimendua egitea.

Nire kasuan, ekoizpen zikloa eta kontsumoa aztertzen duen erronka ikertzen duen taldeko kide naiz. Bertan, Urdaibaiko Biosferaren Erreserban plastikorik gabeko ingurunea lortzeko erronka aztertzekeo helburua dugu, eremu horretan aukera ekonomiko berriak sortu eta ekonomia zirkularreko aukera berriak sortzeaz gain, aukera berri hauek herritarrak, tokiko enpresak eta beste hainbat motetako erabiltzaileak inplikatueto ditu. Gizarte eragile nagusi gisa, GAIA eta Rivages Protech dauzkagu eta nahiz eta erronka nagusia Urdaibaiko Biosfera Erreserban plastikoak modu ez-intrusiboan nola bildu daitezkeen ikertzea izan, azkenean, bi eragile hauek ez dira ados jarri eta bi azpi-erronka oso ezberdin proposatu dizkigute. GAIA-k

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

Bauhausaren filosofiatik abiatuz, plastikoen bilketan eta berrerabilpenean oinarritutako jarduera eta ekitaldiei buruzko plan bat egitea proposatu zuen. Rivages Protech-ek berriz, Urdaibaiko Biosfera Erreserban plastikoen kutsadurak nola eragiten duen aztertzean jarri zuen bere interes osoa. Honek, hasiera batean hainbat arazo ekarri zituen gure taldera, izan ere, bi helburu horren ezberdin lan batean batzea oso zaila bait zen. Baina azkenean, Diseinu Graduko neskek GAIA-k proposatutako erronka landuko dutela eta Neurri Fisikoko Graduko ikasleek Rivage Protech-en erronka landuko dutela adostu genuen, eta nik neuk, legediak eskaintzen digun aniztasunari esker bi ildo horiek batuko ditut lan honen bidez, modu horretara, guztion lana elkarrekin lotuz.

Taldearen osaerarekin jarraituz, disziplina ezberdinetako kideek osatzen dugu gure ikasle taldea, disziplina ezberdinetako bi tutoreek laguntza eskainiz. Kide guzti horien artean, Diseinu Grafikoko Graduko bi ikaslek, Neurri Fisikoko Graduko bi ikaslek, Komunikazioko ikasle batek, Interpretazio Graduko bi ikaslek eta Zuzenbide Graduko ikasle batek, zeina ni naizen, talde bera osatzen dugu.

Taldekieok, erronkari erantzuna eman eta gizarte eragileei gure emaitzak aurkezteko helburuarekin, Workshop bakoitzean zeregin batzuk burutu ditugu. Nahiz eta hasiera batean proiektua bere osotasunean irudikatzea kosta egin zaigun, lan gogorra egin ostean, lortu dugu disziplina guztien ekarpenak bateratuko dituen formatu bat aurkitzea. Azkenean, ekarpen horiek bilduko dituen powerpoint dokumentu bat egitea erabaki dugu horretarako, izan ere, taldekideen artean Arte Ederretako ikasleak daude eta honek, gure taldearen lanaren azken emaitza apur bat grafikoagoa izatea dakar. Modu honetara, nire egitekoa talde lanean, erronkaren alderdi juridikoak aztertzea izango da.

Horretarako, nire lana Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren kontserbazioa eta iraunkortasunarekin zer ikusia duen araudi eta baliabideak, maila globaletik aztertuz ekingo diot lanari eta apurka-apurka maila lokaleko araudi eta baliabideak aztertzerara pasako naiz. Azkenik, nire ekarpena, Urdaibaiko Biosfera Erreserba kontserbatzeko eta iraunkortasuna sustatzeko eta ingurumen eremua garbi mantentzeko har daitezkeen neurri ezberdinak proposatzea izango da.

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

Beraz, lanari ekinez, Biosfera Erreserba bat zer den eta bere izendapena nola egiten den aztertzen hasiko dut nire lana. Ondoren, lana gaur egungo egoera eta beharretan kokatzeko asmoz, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren egoera aktuala aztertuko dut.

Behin lanaren denbora eremua eta eremu lurraldetarra zehaztuta, ingurumenaren ikuspuntutik horren garrantzitsuak diren Bauhaus Europarraren filosofia eta ekonomia urdina aztertuz egingo dut aurrera, analisi juridikoa egiten hasi aurretik.

Jarraian, zuzenbideko arloa aztertzen jarraituko du nire lanak. Lehenik, Espainiar estatuko barne araudia aztertuz, eta ondoren, EAEko araudia, jurisprudentziaren aipamenekin amaituz zati juridikoa.

Azkenik, lanean ateratako ondorioei esker, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren egoera hobetzeko asmoz egingo nituzkeen ekarpen batzuk aipatuz bukatuko dut nire lana.

II. UNESCO-ren MaB PROGRAMA ETA BIOSFERA ERRESERBAK

Lan honen helburu nagusia Urdaibaiko Biosfera Erreserban plastikoek duten eragina aztertzea denez, lehenengo egitekoa Biosfera Erreserbak zer diren, beren funtzioak zeintzuk diren eta beren izendapen metodoa aztertzea izango da. Horregatik, UNESCO-k sortutako MaB programa aztertzea beharrezkoa da. Izan ere, UNESCO-k sortu baitzuen natura esparruei aplikagarri zaien Biosfera Erreserbaren kontzeptu eta kategoria. MaB programaz gain, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren gaur egungo egoerari ere aipamena egingo zaio, gerora aztertuko diren arau eta neurri ezberdinek beragan edukiko duten ondorioak zehaztasun eta argitasunez ikusi eta ulertu ahal izateko.

A. MAB programa eta Biosfera Erreserben kontzeptua eta izendapena eta Urdaibai MABeko Biosfera Erreserba moduan

Duela hainbat hamarkada, giza-populazioa urriagoa zenean, naturak bere hazkuntzaren zikloa aparteko alteraziorik jasan gabe jarraitzen zuen eta osasuntsu mantentzen zen, bere armonia mantenduz, gizadia etengabe hazten hasi zen arte.² Apurka apurka, gizakiaren bizimodua aldatzen joan da eta errekurso naturalak etengabe esplotatuak izaten ari dira kalte nabarmen

² UNESCO-ren MaB Programa. ITURRIA: web gune ofiziala: <https://es.unesco.org/news/dieciocho-nuevas-reservas-ingresan-red-mundial-reservas-biosfera-unesco> (Azken kontsulta: 2022/05/05)

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

eta itzulezinak sortuz. Arrazoi hau dela eta, 1974an UNESCO-k munduko hainbat lurralderen laguntzaz Biosfera Erreserbak sortzeari ekiten dio, izaki eta naturaren arteko elkarbizitza justu eta ekitatibo bat sortu eta kudeatzeko aukera modura eta planetako ekosistema garrantzitsuenen kontserbazioa lortzeko asmoz. Beraz, Biosfera Erreserbak iraunkortasunera zuzendutako nazioartean errekonozitutako espazioak dira eta espazio hauek duten interes ekologiko, biologiko eta kulturalagatik hautatzen dira.

9/2021 Legeak, azaroaren 25ekoa, Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeari buruzkoak ingurumeneko espazio bat biosfera erreserba³ bezala aitortu dadin UNESCO-k Biosfera eta Gizakia Programan (MAB) zehaztutako hainbat baldintza ekologiko, geologiko eta natural bete behar dituela adierazten du (63art.)⁴. Gero, Euskal Autonomia Erkidegoan, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen arloan eskuduna den sailak eskatu behar du eremu natural bat Biosfera Erreserba moduan deklaratu dadin MAB Batzarraren aurrean. Baina proposamena egin baino lehen, dagokion Foru Diputazioak informe bat egin behar du, interes sozial eta instituzionala, deklarazioak eragingo dien administrazio ezberdinak eta Ingurumeneko Aholkularitza Kontseiluaren informea kontuan izanez.

Beraz, Biosfera Erreserbak, eremu batetako dibertsitate biologikoa, kulturala, garapen ekonomikoaren eta sozialaren kontserbazioa eta armonizazioa helburu duten lur eremuak dira. Kontserbazio eta armonizazioa, natura eta pertsonen arteko erlazioak landuz lortu nahi da, herritarrak eremu ekologikoetan integratuz. Biosfera Erreserbak, ekologia ikuspegitik esanguratsuak diren edo balore handia duten eremuetan ezartzen dira.

Eremu baten balioa Biosfera Erreserba bat ezartzeko kalitatekoa den aztertzerako orduan, bertako lur, itsaso eta kosta ingurugiroak baloratzen dira.⁵ Kontserbazio eta armonizazioaz gain, Biosfera Erreserbetan iraunkortasunaren garapenerako ikerketak eta esperimentazioa ere egiten dira. Hala nola, Erreserba batek hiru oinarritzko funtzio bete behar izango ditu: lehena, bere mugarteko ekosistema eta biodibertsitatea kontserbatzea; bigarrena, tokiko

³ EHAA 256. Aldizkaria, abenduaren 10ekoa.

⁴ SANTAMARÍA ARINAS RENÉ JAVIER “*El concepto de reserva de la biosfera en Derecho español.*” Publicación: Revista Aranzadi de Derecho Ambiental num.25/2013 Editorial Aranzadi, S.A.U. (1-3 orr.).

⁵ Programa sobre el Hombre y la Biosfera, 2019-2020 Dokumentua, UNESCO-ren web gune ofiziala: https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000370519_spa (Azken kontsulta: 2022/05/09)

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

populazioaren garapena; hirugarrena, azterketa, formakuntza eta komunikazioa laguntzeko funtzio logistikoa burutzea.

Funtzio hauek bete ahal izateko, Biosfera Erreserba batek hiru eremu mota ezberdinez osatua egon beharko du: erdigune/nukleo eremu bat edo hainbat. Bere funtzio nagusia kontserbazioa izanik; bigarrenik tanpoi zona bat edo hainbat. Nukleo eremuetan gizakiaren jarduerak sor ditzakeen eraginak leuntzen ditu; azkenik trantsizio eremu bat. Bertan, tokiko gizadiaren garapen sozioekonomikoa sustatzeko asmoz, ekonomikoki iraunkorrak diren jarduerak sustatu eta gauzatuko dira.

Nahiz eta Erreserba bat arestian aipatutako hiru eremuez osatu, hirurek Erreserbek bete behar dituzten funtzioak betetzen laguntzen dute, nahiz eta eremu bakoitzak bere erara lagundu kausa. Hala ere, tokiko biztanleriaren inplikazioa oso garrantzitsua da funtzio hauek aurrera eramanez ahal izateko. Horregatik, iraunkortasun mundiala, nazionala eta lokala lortzeko aburuz modelo ezberdinak sortzen dira eta Biosfera Erreserbak ikaskuntzarako toki gisa balio izango dute, hainbat disziplina eta sektoreetako kolektiboek, garapen iraunkorraren printzipio globalak praktikan jartzeko lan egiteko aukera edukiz bertan.⁶

Historikoki, Urdaibai Biosfera Erreserba bezala izendatu baino lehen, 1968. urtean Bizkaiko Diputazio Probintzialak “Mundakako Itsasadarraren Ustiapenerako Plan Berezia”-ren elaborazioa agindu zuen, Gernika eta Mundaka arteko eremuetako lehorketa eta urbanizazioa sustatzeko teknikak arautzeko. Egoera horren aurrean, bertako biztanleria haserretu egin zen eta Urdaibaiko ekosistemaren txikizioa ekarriko zuen Planari aurre egiteko asmoz batu egin ziren. Herritarren mugimenduari esker, 1984an Eusko Jaurlaritzak UNESCO-ri arestian aipatutako eremua bere MaB Programan integratzeko asmoz proiektu bat aurkeztu zion eta UNESCOk urte horren amaierarako lurralde esparru horri Biosfera Erreserba izatera aitortu zion, Urdaibai izena ezarriz. Gaur egun, Urdaibaigo Biosfera Erreserbak, bere eremuak,

⁶ Urdaibaiko Biosfera Erreserbako webgune ofiziala: <https://www.urdaibai.eus/es/> (Azken kontsulta: 2022/05/04): “Urdaibaiko Biosfera Erreserba#, Euskal lurraldean kokatutako Biosfera Erreserba da. Urdaibai 23.000 hektarea eta lur horietan kokatutako 22 udalerrik osatzen dute, bere muin edo sorlekua Oka errekan kokatzen da eta Kantauri itsasoaren bideko eremuetarantz zabaltzen da, inguruko hainbat mendi-tontor barneratzen direlarik bere mugarteetan.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren mugartea, Oiz mendiaz mugatzen da Erreserbaren hegoaldeko alderdian, Arbolitzek ekialdeko muga zehazten du, Martxitxako lurmuturrak mendebaldeko muga eta iparraldeko eremua berriz, Izaro irlaz mugatzen da.”

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

jarduerak, planak eta beste hainbat arlo arautzen dituen lege propio bat du, 5/1989 Legea Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren babes eta ordenantzari buruzkoa, lan honetan aurrerago aipatu eta ikertuko dena.

B. Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren egoera gaur egun

Urdaibaiko Biosfera Erreserban, munduko beste hainbat bazterretan bezala, plastikozko hondakinek sortzen dituzten ondorioak nabarmenak dira, hainbat arazo larri sortuz⁷. Azken urteetan zientzialariek burututako ikerketa ezberdinetan, urtean itsasora 10 milioi tona hondakin iristen direla ikusi da, eta horietako %70 plastikoa dela. Egoera honen aurrean, plastikozko kopuru handi horiek zein modutara iristen diren itsasora ikertzeko beharra sortu zen. Ondorioz, planetako itsasoetan pilatzen diren plastikozko hondakinen %70a nagusiki lurraren bidez itsasoratzen direla ikusi zuten adituek, eta horien 15%ak itsasoan flotatuz kostaldeetara iristen direla gerora.

Ikerketen emaitzei erreparatuz, ez dago zalantzarik plastikoak modu askotan eragin dezakeela itsas bizitzan, arrainak plastikozko sare edo botiletan harrapatuak geratuz adibidez. Arestian aipatutako adibidea oso nabarmena da, baina badira gizakiaren ikuspuntutik identifikatzeko horren errazak ez diren gatazkak. Itsasora jaurtitako plastikozko hondakinek, itsas-bizidunen artean espezie inbasoreak sortzea dakar adibidez, hauek makrohondakinetara atxiki eta herrialde ezberdinetarantz zabalduz.

Mikroplastikoak, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren ingurumena mehatxatzen duten beste arrisku bat dira. Plastiko zati txiki hauek, nahiz eta ezin diren gizakien begiez ikusi, itsasoa modu larrian kutsatzen baitute, itsasoko animaliek irensten baitituzte eta planetako izaki bizidunen osasunean eragiten dute, baita gizakiengan.

Beste fenomeno negatibo bat, “mamu arrantza” deiturikoa dugu. Arrainak ehizatzeke erabili ohi diren tramankuluak, batzuetan itsasoan galdu eta animaliak bertan harrapatuak geratzen dira.

⁷ Urdaibai magazine online “SOS *plasticos en el mar*” artikulua, webgunea: https://urdaibaimagazine.eus/wp-content/uploads/2018/05/URD_MAG_13-CAST-v05_webpaginas.pdf (Azken kontsulta. 2022/05/03)

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

Nahiz eta adituek hainbat metodo erabili zaborrak bildu eta Urdaibaiko Biosfera Erreserba garbi mantentzeko, argi dago zeregin garrantzitsuena gizartea sentsibilizatzea dela⁸. Horregatik, belaunaldi berriak egoeraz kontzientziatu eta egunerokotasuneko ohiturak aldatzetik hasi beharko litzateke sentsibilizazio plan hau. Egunerokotasuneko plastikoen kontsumoa nabarmenki gutxituz adibidez, horretarako, erosketetan plastikozko poltsen eskaintza gutxituz, plastikozko edukiontzietan saltzen diren produktuen erosketak murriztuz...

III. EUROPAR BATASUNAK ERAGIN DITUEN AZKEN EKIMEN ETA KORRONTEAK

Europar Zuzenbidean, Ingurumen Zuzenbidearen alorra arautzen duen araudia oso anitza da. Hala ere, ohikoa da araudi desberdinen helburuen atzean abiapuntu komun bat aurkitzea, kasu honetan gertatzen den bezala. Izan ere, MAB proiektua Biosfera Erreserbak kontserbatzera zuzentzen da, hau da, natura babestean dago bere oinarria. Beraz, Bauhaus Berriak, Europako Paktu Berdeak, Ekonomia Zirkularrak eta Ekonomia Urdinak ere, nahiz eta arau edo ideologia korrante bakoitza helburu zehatz batetarantz zuzendu, guztien atzean ingurumena kontserbatu eta iraunkortasuna lortzeko asmoa dago.

Hau da, Paktu Berdeko helburu iraunkorrak, Bauhausak Berrikuntzak sartuz lortu nahi ditu eta Bauhauseko helburuak, zer ikusi handia edukiko dute Ekonomia Urdin, Berde eta Zirkularreko korronteekin. Beraz, lanaren hirugarren atal honen helburua, arau eta ideologia horiek guztiek elkarren artean duten lotura eta bateragarritasuna aztertzea izango da. Izan ere, Europar Batasunak araudi estatal eta autonomikoarentzat garrantzi handia du.

⁸ "Biosfera Erreserba Bizkaitarra mehatxatzen duten arazo horien guztien aurrean, Bizkaiko golkoan hainbat kanpaina aplikatzea proposatu dira, beste askoren artean, Gipuzkoako Foru Diputazioak zuzendu duen "LIFE LEMA" proiektua. 2016. urteaz geroztik, itsasoan flotatzen duten plastikozko hondakinak bildu eta kudeatuko dituen zerbitzu bat ezartzea du helburu proiektuak eta zerbitzu horri esker, toki erakundeak kostaldea garbi mantentzera eta ingurumeneko inpaktu ezkorak gutxitzera zuzendu nahi ditu. Proiektuaren helburua bete ahal izateko, bi arrantza itsasontzi eta hiru garbiketarako itsasontziz baliatuko dira bilketan. Itsasontziez gain, uretan flotatzen duten hondakinak jasotzeko langa moduko bat ezarri da Debako ibai-ahoan eta Adour eta Oria ibai-ahoen ertzetan berriz bideokamerak hondakinak kontrolatu ahal izateko. Azkenik, ozeano-metereologia modeloez baliatzen da proiektua. Modelo hauek, hondakinak nondik iritsiko diren itsasora aurreikusten lagunduko dute. Fisikari profesionalak arduratuko dira zeregin honetaz, hondakinak non pilatuko diren ikusi ondoren arrantzaleei jakinaraziz zaborra biltzera eremu horretara bertaratu daitezten."

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

A. Europako Bauhaus Berriaren Ekimena

Europako Bauhaus Berria, Europar Batasunak bizimodu iraunkor bat sustatzeko asmoz sortu duen ekimen edo proiektu bat da. Europar Batasunaren xedea, hainbat sektore ekonomiko ekologiarantz zuzentzea da, eremu berri eta produktu berriak sortuz eta bizimodu iraunkor eta inklusibo bat sustatzuz⁹.

Proiektu honen helburua bete ahal izateko, sektore eta arlo ezberdinetako jendea elkarlanean jarduteko biltzea beharrezkoa denez, Europako Komisioak proiektu hau diseinatu bana lehen bertan parte hartzeko asmoa zuten pertsona guztien ideiak, adibideak, ikuspuntuak etab. entzun zituen, ondoren aipatutako proiektua sortu ahal izateko.

Horrez gain, Europako Komisioak Bauhaus Berria proiektuaren jomugetara iristeko asmoz, alde batetik, interesdunak bilduko dituzten mugimenduak eta ekimenak sortuko ditu. Beste aldetik, azterketak egiteko, politikak entseatzeko eta diseinurako eremu edo espazioak eratu ditu¹⁰. Gainera, finantziario gehiago lortzeko asmoa ere adierazi da Komunikazioan, Bauhausaren jarduerak indartu eta bere helburuak lortu ahal izateko instrumentu gehiago sortzeko erabiliz aurrekontuak.

Ekologiarantz zuzendutako bizimodu iraunkor bat sustatzeko nahia aipatzean, hiru dira kontuan eduki beharreko baloreak. Lehena, iraunkortasuna; ingurumeneko xedeak, zirkulartasuna, biodibertsitatea eta kutsadurarik eza biltzen dituelarik. Bigarrena estetika; funtzionaltasunaz gain, estiloa eta kalitatea egonez bere baitan. Azkena, inklusioa; dibertsitatean oinarrituz irisgarritasuna eta berdintasuna bermatuko ditu azken honek.

⁹“La nueva estrategia de la Unión Europea sobre las zonas rurales: pacto verde, visión a largo plazo y nueva Bauhaus (1)”, LA LEY Unión Europea n, zk 98, 2021eko abenduaren 1a. Europako Bauhaus Berria (23-27or): “Europako Bauhaus Berriaren Proiektuak badu aitzindari bat, 1919. urtean Walter Gropius arkitekto Alemaniarrak Wimar Hirian (Alemania) eraiki zuen Bauhaus Eskola alegia, zeina 1925. urtetik aurrera beste hiriburu batzutan egoitzak zabalduz joan zen. Bauhaus-ak hasiera batean, artearen alorra erreforman zuen interesa soilik, diseinutik hasi eta filosofia alorrerarte.

Hain handia izan zen eskola eta mugimendu honen garrantzia, non, 100 urte geroaro (2020eko irailean) Europako Komisioko presidentek Europako Parlamentuan proiektu hau aurkeztea erabaki zuela eta azkenik onartu egin zela “Europako Bauhaus Berria” izenez. Gaur egun proiektua, iraunkortasunean oinarrituz toki, produktu eta bizimodu berriak sustatzeko eta ekonomiaren sektore ezberdinak ekologiarantzko trantsizioa zuzentzeko mugimendu berritzaile bat da.”

¹⁰ Europar Batzordeak Europar Parlamentuari, Kontseiluari eta Europar Ekonomia eta Gizartearen Batzordeari egindako komunikazioa (COM (2021) 573 azkena)

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

Zerrendatu berri diren hiru baloreetan oinarrituz, kostu global baxuago batean pertsona eta arazo ezberdinei erantzun berri eta originalak ematea da Bauhaus Berria proiektuaren asmoa.

Arestian azaldutako baloreak kontuan izanda eta sektore eta arlo ezberdinetako interesdunen parte hartzeaz burututako diseinu fasearen ondoren, proiektuak hiru ikuspuntu garrantzitsu ondorioztatzen ditu.

Lehenak, dimentsio mundial eta lokala bateratzen ditu. Bauhaus Berriak, bere proiektuak dakarren eraldaketa maila ezberdinetara eraman nahi du, ikuspegi mundialetik hasi eta eremu lokaletara zabalduz. Izan ere, klima aldaketa eta trantsizio ekologikoa mundu mailako erronka dira, baina bere ondorioak eremu txikiagoetan edukiko dute eragina; herri, auzo eta kaleetan alegia.

Bigarren ikuspuntua, Europar Batzordeak gizartearen parte hartzea sustatzeko duen nahian oinarritzen da. Modu honetara, biztanleriak Bauhaus Berri Proiektuaren helburuak betetzeko konpromiso handiagoa hartuko dutela eta sormen handieneko irtenbideak pentsamendu kolektibotik datozela uste baita. Irtenbide hauek, egunerokotasuneko arazoei erantzun eta bizi kalitatea hobetzeko balio behar dute.

Azkenik, ikuspuntu, disziplina eta sektore ezberdinak bateratuz etorkizun berri eta hobe bat sortzeko erronka du proiektuak. Bateratze horri esker, proiektuaren ideiak, ezagutzak, gaitasunak eta metodologiak aberastuko baitira.

Behin proiektuaren diseinu fasea amaitu eta Bauhaus Berriaren ikuspuntu garrantzitsuak zehaztuta. Bauhaus Berriaren mugimenduak jarraituko dituen oinarri edo ardatzak zehazten dira, eta horiek azaltzea garrantzizko zeregina da Bauhausaren filosofia ongi ulertzeko.

Proiektu honek jarraituko duen lehen ardatza, gizartearen naturarekin birkonektatzea da. Hau da, gizartearen gaur egungo kutsadura murrizteko beharraz eta lurra jasaten ari den klima aldaketaz ohartaraztea. Modu honetara, gizadiaren bizimodua osasuntsuagoa izango litzateke; airearen, uraren eta luraren kalitatea nabarmenki hobetuz. Lehen oinarri hau lortzeko, proiektua

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

norbanakoan zentratu orde, bizitzan zentratuko da; hiriak ekologikoagoak bihurtuz, hondakinak birziklatuz, hezkuntzan haurrak sentsibilizatzeko mekanismoak integratuz...

Proiektuaren beste ardatz bat, gizarteari naturaren edukitza berreskuratu duela sentiaraztea da. Oinarri hau lortzeko asmoz, espazio komunak hobetuko dira; ondasun kulturalak, paisaiak, naturako errekurtsoak...

Jarraian aztertuko den oinarriak, inklusioaren balorearekin du zerikusia. Ingurumeneko arazoei erantzuteko asmoz, proiektuak proposatzen dituen irtenbideak, berdintasun osoz edonorentzat balio izan eta eskuragarri egotea suposatzen du oinarri honek. Beraz, garrantzitsua da behar egoera handiengan dauden pertsona eta lekuei lehentasuna ematea, berdintasun hori lortu ahal izateko. Aspektu sozial batetik erreparatuta, pobrezia egoeran dauden giza taldeak presente izanez lortuko da oinarri hori. Eta aspektu lurraldeartetik erreparatuta aldiz, herri txikiak, landa eremuak, gainbeheran dauden hiriak, etab. kontuan hartuz.

Azken ardatza, etorkizunera begiraturaz ekosistema industrialen bizi zikloa aztertzea da. Izan ere, diseinu fasean, hondakinei eta errekurtsoei erabilera iraunkor bat ematea beharrezkoa zela ikusi zuten parte-hartzaileek. Modu honetara, produktiotik hasiz, produktuen entrega egin bitartean, ekonomia zirkularren baloreak errespetatuko direla ziurtatu nahi du Bauhaus proiektuak; materialen birziklatzea eta birsorkuntza, eraikinen aprobetxamendua etab.

B. Europako Paktu Berdea

Behin Europako Bauhaus Berria aztertuta, Europar Batasuneko landa eremuak bizimodu Europarraren oinarritzko zati bat direnaren ideia argi dago. Baina, kontuan eduki beharrekoa da, landa eremu hauek gaur egun jasaten ari diren arazoaren ugartasuna; despopulazioa, zerbitzu publiko eta pribatuen gabezia, azpiegitura nahikorik eza, enplegu arazoak... Egoera honen aurrean, Europar Batasunak 2019. urteaz geroztik, behar horiei erantzuna emango dien

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

hainbat dokumentu estrategiko egiteari ekin dio¹¹: Europako Paktu Berdea¹², 2030erako Agenda Lurraldetarra, “Baserritik mahaira” izeneko estrategia eta Europako Bauhaus Berriaren proiektua. Dokumentu horien artean, Europako Paktu Berdea eta Bauhaus Berriaren Proiektua direnez zer ikusi handiena dutenak nire ikerkuntza-lanarekin, bi dokumentuen arteko eta Ekonomia Urdinarekiko duten lotura aztertuko da jarraian.

Europako Paktu Berdearen dokumentua, Ursula von de Leyen presidentek Europako Parlamentuan egin zuen proposamenari esker onartu zen 2019 urtearen amaieran. Aurrez, 2019ko ekainaren 20an, Kontseilu Europarrak, Europar Batasuneko 2019-2024 urte bitarteetako Agenda onartu zuen, bertan beste hainbat helburuen artean, honako hauek adierazi ziren bertan: klimatikoki neutrala, ekologikoa, justua eta soziala den Europa eratzeko beharra; ekologiaren trantsizioak sortutako aldaketei aurre egiteko iraunkortasuna lortzea; teknologiaren eboluzioa; nekazaritza iraunkorra sustatzea, elikagaien segurtasuna bermatu eta produkzioaren kalitatea sustatzeko...¹³

Agenda horretan adierazitako helburuek, ingurumen eta klima eremuetako beharrak agerian utzi zituzten eta horri erantzuteko onartu zen Europako Paktu Berdea, zeina Europar Batasunaren ingurumen eta iraunkortasun arloetako proiektu guztien artean anbizio handienekoa den. Gainera, Komisio Europarraren klima eta ingurumen arloetako erronkei erantzuteko konpromisoaren islada argia da, Europar Batasuna gizarte oparoa eta bidezkoa izatera zuzentzen duen estrategia bat izateaz gain.

Itun honen asmo nagusia, Europar Batasuneko ondare naturalak babestea, mantentzea eta hobetzeaz gain, bertako biztanleen osasuna eta ongizatea bermatzea eta ingurumeneko arrisku eta inpaktuetatik babestea da. Asmo hori lortzeko, ekonomiaren trantsizioa, gizarte modelo justu eta integratzaile bat lortzea eta energia modelo berriak sortzea beharrezkoa da.

¹¹(COM/573/2021) Europako Batzordeak Europako Parlamentuari, Europako Kontseiluari eta Ekonomia eta Gizarte Kontseilu lurraldetarrari egindako komunikazioa. *La Nueva Bauhaus Europea: hermosa, sostenible, juntos (3-7 or.)*

¹² Europako Batzordeak Europako Parlamentuari, Kontseiluari eta Ekonomia eta Arlo Sozialeko Batzorde Lurraldetarrari egindako komunikazioa (COM/2019/640) Europako Paktu Berdea.

¹³ “*La nueva estrategia de la Unión Europea sobre las zonas rurales: pacto verde, visión a largo plazo y nueva Bauhaus (1)*” LA LEY Unión Europea, zk 98, 2021 eko abenduaren 1a. Europako Paktu Berdea:(8-17 or.)

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

Europako Paktu Berdearen strategiaren objektua lortu ahal izateko, lau ardatz nagusi bereizten dira. Lehen, Europar Batasuneko ekonomia etorkizun iraunkor baterantz zuzenduz transformatzea da. Ardatz honek, honako esparruetan jardungo du: 2030 eta 2050 urteen bitartean klimaren aldeko jardueren maila handitzen eta energia garbiago, eskuragarriago eta seguruagoa hornitzen; ekonomia garbi eta zirkularren alde industriak mobilizatzea; eraikuntza eta berrikuntzetan, energia eta errekurtsoen erabilera eraginkorragoa dela bermatzea, substantzia toxikoen kutsadura gutiz murriztuz; biodibertsitate eta ekosistemen zainketan eta berrezarpenean; “Baserritik mahira” estrategian, elikagaiak seguruak direla eta ingurumena errespetatzen dutela bermatuz; azkenik, mugikortasun iraunkor eta argi batentzako trantsizioa azkartzen jardungo du.

Nabarmena da, esparru hauek guztiek landa eremuarekin duten lotura, nahiz eta guztien artean: ekonomia zirkularra, substantzia toxikorik gabeko ekosistema eta inguruneak eta biodibertsitate eta ekosistemen babes eta zaintzari ematen dieten garrantzi handiena.

Bigarren ardatza, Europar Batasunaren politika guztietan iraunkortasuna barneratzea da. Honek, landa munduari erreferentzia zuzenagoak egiten dizkio arestian ikertutako ardatzarekin alderatuz gero: finantza ekologikoa eta trantsizio justua lortzea; nazioen aurrekontuak ekologikoago bihurtzea eta prezio egokiak emititzea; ikerketa eta berrikuntzak egitea; kalteak ez sortzeko formakuntzak sortzea. Beste ardatz bat, Europar Batasuna iraunkortasunaren arloan lider mundialtzat kontsideratu ahal izatea da eta helburu hau lortzeko, instituzio eta entitate guztiak iraunkortasunaren arloan parte har dezaten lortzen saiatuko da Europar Batasuna, izan ere antolakuntza hauek dira landa eremutik urrutien geratzen direnak, baina beren parte hartzea oso lagungarria da Europako Paktu Berdeak ezarritako helburuak lantzerako garaian. Azken ardatza, klimaren Europako Paktua aurkezteko nahia da, neurri eta proposamenen egutegia eginez.

C. Europako Bauhaus Berriaren Ekimenaren eta Europako Paktu Berdearen alderaketa eta harremanak

Europako Bauhaus Berriaren proiektua Europako Paktu Berdearekin alderatuz, landa eremuarekin lotura duen Komisio Europarrak onartutako beste ekimen bat da, zeina 2021eko

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

irailaren 15ean onartu zen, Europako ekonomian eta gizartean bizi modu iraunkor eta ekologiko bat sustatzeko asmoz. Bauhaus Berriaren asmoa, Europako biztanleei, naturaren birsorkuntzan eta biodibertsitatea babestuz ondasun zirkularrak eskaintzea da.

Baina, Bauhaus Berriaren benetako garrantzia, Europako Paktu Berdeari ematen dion dimentsio kultural eta berritzailean dago. Izan ere, bere helburua Europako Paktu Berdearen helburuak lortzen laguntzea da. Baina, jomuga horietara iristeko zehaztu diren erronka eta ekimenetan tekniken berrikuntzak sartuz, teknologia berriak erabiliz eta ekonomia iraunkorreko hobekuntzak txertatuz.

Europako Bauhaus Berriak aburu duen eraldaketa ekosistema industrialaz baldintzatua dago¹⁴. Proiektuak dakarren eboluzio edo eraldaketa eraikuntza fasean hasten da; materialen erabilerari, enpresen modeloari eta beste hainbat erronkei erantzuna emateko beharra erakutsiz. Eraldaketaren amaiera aldiz, eraikinetan biziko diren pertsonen bizimoduan amaituko da. Argi dago, aldaketa hauek ez direla bat-batean emango, horregatik Europako Bauhaus Berriak politika horien azterketa eta entseguak burutu ahal izateko espazio bereziak ere sortuko ditu.

Arestian aipatu bezala, 1919. urteko Bauhaus mugimendua, artea berritzera zuzendu zen. Baina Bauhaus Berriaren baloreak aldiz, ingurumenaren iraunkortasuna, estetika eta inklusioa dira eta bere erronka nagusia, hiru balore hauek aldi berean erabiliz pertsonen beharrei erantzun eta ingurumenaren kostua nabarmenki murriztu ahal izateko irtenbideak garatzea da.

Gaur egungo beharrak erantzungo dituzten konponbideak berrikuntza eta originaltasunera zuzen daitezten, Bauhaus Berriak hiru printzipio dauzka kontuan bere prozesu osoan zehar, arestian aipatutakoak zehazki¹⁵. Honela, landa eremuarekin lotura edo berarekiko eragina

¹⁴ “La nueva estrategia de la Unión Europea sobre las zonas rurales: pacto verde, visión a largo plazo y nueva Bauhaus (1)”, *LA LEY Unión Europea*, zk 98, 2021eko abenduaren 1a. Europako Bauhaus Berria (23-27or).

¹⁵“Lehen printzipioa, maila ezberdinetako ikuspuntuak bateratzea da, mundu mailako ikuspuntuak, tokiko ikuspuntuekin, azken honek landa eremuetako ikuspuntuak barneratuz. Izan ere, klima aldaketa eta ekologiaren trantsizioak, mundu mailako erronkak planteatzeaz gain, toki-eremuetako erronkak ere planteatzen dituzte, biztanleriari zuzenean eragiten dietenak izango dira.

Bigarren printzipioa, beharrei erantzuna ematerako fasean sozietate zibila, lurraldeko agenteak, talde behartsuak... parte hartzea gonbidatzea da. Honela, politika eta jarduerak, finantziarioa eta instrumentuak proposatzean gizarteko egoera ezberdinak izango dira kontuan.

Azken printzipioa, profesio eta sektore ezberdinen ikuspuntuak bateratzen dituen da. Ideiak, ezagutzak, gaitasunak, jarduteko metodoak... partekatuz eta proiektuari ikuspegi multidisziplinaria (teknologia, kultura, diseinua, arkitektura, zientzia etab.) emanez.”

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

дутен Europako Bauhaus Berriaren proiektuaren hiru ardatz azpimarratuko dira. Naturarekin birkonektatzea, klima aldaketak, kutsadura murrizteko eta gizartearen sentsibilizazio eta ekimenaren beharra dagoela erakutsi baitu. Klimaren aldeko jarduera hauek, egunerokotasunean eman beharreko ekimenak dira; bizi kalitatea, uraren eta lurraren kalitatea etab. hobetuz. Hau da, hiri eta herri ekologikoagoak sortuz, modu iraunkorrean sortutako produktuak eskuratuz edo materialak erabiliz, hondakinak birziklatuz, garraiobideen azpiegiturak ongi dauden birplanteatuz etab.

Edukitza sentimenduaren berreskurapena bigarrenik. Jopuntu hau lortzeko asmoz, proiektuak “15 minutuko hiriak” ekimena proposatu du. Ekimen honek, hiritarrei oinarrizko zerbitzuak eta aisialdirako eremuak beren bizilekutik oinez abiatuz, 15 minutuko distantzian eskuragarri jartzea du helburu. Helburu hau aurrera eramateko, behar egoeran dauden pertsona eta tokiak hartuko dira kontuan, Bauhaus Berriaren izaera inklusiboari esker. Hau da, herri txikiak, baztertutako hiri handietako kaleak, industriarik gabeko eremuak eta behar egoeran dagoen beste edozein eremu kontuan hartuko da ekimen hau martxan jartzerako orduan.

Azkena, industria ekosistemen biziraupena etorkizunerantz begira ikertzea dugu. Berrerabilerari, birsorkuntzari, eraikuntzen bizia luzatzeari eta transformazioari egiten dio erreferentzi, arkitektura eta diseinu zirkular eta egonkorak ohikotasunean barneratzeko asmoz. Sektore hauek iraunkortzeko eta zirkularizatzeko, teknologia berriak, negozio modelo iraunkorrak eta material berriztagarriak erabiliko dira.

Europako Komisioak, Europako Bauhaus Berria bere erronkak betetzen has dadin laguntzeko asmoz, Laborategi bat sortzea erabaki du, hausnartzeko eta entseatzeko espazio bat eskainiz proiektuan parte hartzen duten adituei. Ondorioz, proiektuko ekintzak burutzeko azpiegitura bat, plataforma digital bat, finantziazioa eta adituak hartzen joango dien neurri berriak aztertu eta aldatzeko ikerketa eremu bat behar izango dira.

Gero, 2022. urteko udaberrian Europako Bauhaus Berriaren Feria ospatuko da, bertan berrikuntza eta aldaketen erantzuleei ikusgarritasuna emango zaie eta ordura arte eman diren neurri, aurrera pausuak eta emaitzak aurkezteko aukera izango dute ekintzaileek.¹⁶

¹⁶Europar Batasuneko web gune ofiziala. (Azken kontsulta: 2022/05/03). https://ec.europa.eu/info/strategy/priorities-2019-2024/european-green-deal_es

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

Komisio Europarraren bi komunikazioak alderatuz. Europako Paktu Berdea, Bauhaus Berria baino ekimen tradizionalagoa dela erraz ikus daiteke. Europar Batasunak klima aldaketari aurre egiteko asmoz sortu duen instrumentu bat baita; naturako inguruneak babestera, ekonomia garbia garatzera eta kutsadura murriztera zuzendua. Baina Europako Bauhaus Berriak aldiz, Paktu Berdeari dimentsio kultural eta berriztaile bat emateko xedea du. Berrikuntzez baliatuz, Paktu Berdearen helburuak lortzeko teknologia berriak sortu eta ekonomia iraunkortasunerantz zuzendu nahi du.

Nahiz eta bi ekimenak ezberdinak izan, bien arteko lotura ingurumenaren iraunkortasuna lortzeko asmoan aurkitzen da; ekonomia zirkularra, kutsadurarik eza eta biodibertsitateen babesa bermatzeko duten nahiaz gain. Bi ekimenen arteko ezberdintasuna aldiz, helburu hori lortzeko metodoan oinarritzen da, Bauhaus Berriak asmo hori, estetikan berrikuntzak sortuz, berdintasunean oinarrituz eta inklusioa sustatuz lotu nahi baitu.

Bauhaus Berriaren komunikazioan aurki daitekeen proposamen berriztatzaile bat adibide modura aipatuz, amaiera emango zaio lanaren zati honi. Bauhaus Berriaren komunikazioan aurki daitekeen proposamenetako bat, teknologia berriak erabiliz teknika berriak sortzeaz gain, nekazaritza eta artisautzako teknika tradizionalak teknika berrietara egokituz berrikuntzak sortzea da, honek inklusioaren printzipioarekin lotura edukiz.

D. Ekonomia Urdinaren kontzeptua eta Ekonomia Zirkularrarekiko duen lotura estua

Europako Bauhaus Berriak, beste hainbat proposamen eta helbururen artean, espazio naturaletan ematen diren jarduera eta ekintzak jasangarritasunera zuzentzea du xede, beste hainbat jarduera eta ideien artean. Horregatik ekonomia urdina, jarduera ekonomikoen egiturak iraunkortasunerantz eta ekonomia zirkularrerantz zuzentzeko duen aburuagatik oso lagungarri zaio Bauhaus Berriari, Europako Paktu Berdeko helburuak berrikuntzekin sustatzerako garaian.

Europar Batasuneko ekonomia urdinak, bertako ozeanoarekin, itsasoarekin eta kostaldearekin lotura estua duten industria eta sektoreak biltzen ditu; arrantza, kostako turismoa, itsas garraiobideak, portuko jarduerak etab. Hauek guztiak, ingurumen eta kliman eragiten baitute.

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

Hori dela eta, sektore hauek 4,5 milioi lan postu sorrarazten dituzte eta 650.000 milioi euroko negozio masa.

Beraz, nabarmena da ekonomia urdina eta bere baitan dauden sektoreen garrantzia. Horregatik, Europako Komisioak Komunikazio bat egiten du 2012ko Hazkuntza Urdinaren Komunikazioa ordeztzeko eta Europar Batasuneko ekonomia urdin iraunkorrari ikuspuntu berri bat emateko asmoz¹⁷. Honela, ozeanoarekin, itsasoarekin eta kostaldeekin lotura duten sektore eta industria horiei ikuspuntu berri baten inguruan proposamena egiten die. Izan ere, ekonomia urdina Europako Paktu Berdearen helburuak bete ahal izateko oinarritzakoa baita.¹⁸

Frans Timmermans Paktu Berde Europarraren presidenteorde exekutiboaren ustetan, ekonomia urdinaren garapena lortzeko, ozeanoen ongizatea bermatzea baldintza garrantzitsua da. Izan ere, kutsadurak, arrantzak eta habitat suntsiketak ekonomia urdinaren ikuspuntutik horren garrantzitsua den itsas biodibertsitatearentzako mehatxu handia dira. Horregatik, ingurumena eta jarduera ekonomikoak neurtuz eta zainduz, ekonomia urdin iraunkor bat sortzeko beharra aldarrikatzen du.¹⁹

Behar honi erantzun bat emateko eta klimaren eta biodibertsitatearen krisiari aurre egiteko, ekonomia urdina osatzen duten sektore ezberdinek ingurumenean duten inpaktua murriztu beharko dute, oso garrantzitsua baita itsasoa osasuntsu mantendu eta bertako errekurtso naturalen erabilera jasangarria bematzea.

Ekonomia urdin eta iraunkorrerantz trantsizioa egin ahal izateko, teknologia berritzaileetan inbertsioa egitea beharrezkoa da; marea eta olatuetatik eratorritako energian, algen produkzioan, arrantzarako tresneria berriztapenean edo itsas ekosistemen berriztatzean adibidez. Honi esker, lan postu eta enpresa berriak sortuko baitira ekonomia urdinaren barnean.

¹⁷Europako Batzordearen ekonomia urdinari buruzko komunikazioa “*A new Approach for a Sustainable Blue Economy in the EU. Transforming the EU Blue Economy for a Sustainable Future.*” (COM/2021/2040/final)

¹⁸Komisio Europarraren prentsa komunikazioa “*Pacto Verde Europeo: Desarrollar una economía azul sostenible en la Unión Europea*” buruz. https://ec.europa.eu/commission/presscorner/detail/es/ip_21_2341

¹⁹ 2021eko maiatzaren 17ko Europar Batasunaren prentsaren komunikazioan. Web gune ofizialean eskuragarri: https://ec.europa.eu/commission/presscorner/detail/es/ip_21_2341 (Azken kontsulta: 2022/05/03.)

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

Europar Batzordeak aurrez aipatutako Europar Paktu Berdeari buruz egindako komunikazioan, ekonomia urdinera zuzendutako helburu batzuk zehazten ditu, horiek betetzea lortu nahi diren datak aurreikusiz: klimaren neutraltasuna eta kutsadurarik eza lortzea, itsas energia berriztagarriaren bitartez, itsas garraiotik ikatza kanporatuz eta portuak ekologiarantz zuzenduz. Honela, energia eolikoa, termikoa, olatutik eratorritakoa eta mareaz sortutako energiak baliatu 2050. urterako Europar Batasunean erabiltzen den energia kopuruaren laurdena lortzeko bide izan daitezkeen lortu nahi da; Kontaminazioa gutxituko duen ekonomia zirkular baterantz trantsizioa egitea, plastiko eta mikroplastikoen kutsadura murrizteko neurriak hartuz adibidez; ingurumenean inbertitzea biodibertsitatea babesteko asmoz; Europar Batasuneko itsas eremuaren %30a babestea, arrainen populazioak handitzea, klima aldaketari aurre egiten parte hartzea etab.; janarien produkzio iraunkorra bermatzea; produkzio iraunkorra lortzea, komertziorako araudi berriak eginez, arrantzaren kontrolak ezarriz etab.; klima aldaketa eta kostaren erresilientziara egokitzapena erraztea; egokitzapen jarduerak eginez, kosta eremuan azpiegitura ekologikoak sortuz eta kostaldeak babestuz hainbat arriskuren aurrean; itsas eremuaren hobeto kudeatzea azkenik.²⁰

Itsas ekosistemak babestea eta sustatzea erronka nagusia den garaietan, Ekonomia Urdinak, itsaso eta ozeanoekin lotura duten jarduera ekonomikoetatik aberastasunak eskuratzeko bidea sortzeari ekin dio.²¹

Ekonomia Urdinaren helburu nagusien artean, hazkuntza ekonomikoa, bizi kalitate hobekuntza eta batasun sozialaren sustatzea aurkitzen dira. Baina guzti hau, kostalde eta ozeanoen ingurumenaren iraunkortasuna arriskuan jarri gabe lortzea du xede. Izan ere, eremu hauetatik lor daitezkeen errekurtsoak oso mugatuta eta baldintzatuta daude gizakiak ingurumenean sortzen dituen inpaktuaren ondorioz.

Horregatik, Europako Komisioak Ekonomia Urdinaren garapenerako estrategia eta komunikazio anitz gauzatu ditu, arestian aztertu den 2021eko maiatzaren 17ko Komunikazioa adibidez. Estrategia hauek, Ekonomia Urdineko bost sektore nagusiak iraunkortasunera eta

²⁰Europako Batzordeak Europako Parlamentuari, Kontseiluari eta Erregio mailako Ekonomia eta Arlo Sozialeko Batzordeari egindako komunikazioa (COM/2019/640) Europako Paktu Berdea (4- 17 orr. zerrendatuta).

²¹MARTINEZ VAZQUEZ, Rosa María: *“Economía Azul como fuente de desarrollo en la Unión Europea”*. Gizarte Zientzien Aldizkaria, XVII. alea, 4zk, 2021.

<https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=28069360002> (Azken kontsulta: 2022/05/03)

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

ingurumenerako egokitasunera zuzendu nahi ditu, modu honetan aberastasun ekonomikoak modu ekologiko batean eskuratu ahal izateko.

Beraz, Ekonomia Urdinak kontsumitzaileak erabakiak hartzerako garaian kontzientzia handiagoa izatea bilatzea du xede, gaur egun nagusitzen den kontsumo modelo kaltegarria aldatzeko aukerak emanez²². Izan ere, gaur egungo produkzio modeloak, ingurumenean modu ezkorrean eragiteaz gain, ekonomian desoreka sortzen du, desenplegua eta tasa altuak adibidez. Horri aurre egiteko asmoz, Ekonomia Urdinak ingurumenarekin parekotasunak dituen lan sistema bat ezartzea proposatzen du, lan sistema berri horren erabilerak enpresek fabrikazio eta garraio kostuak gutxitzea bilatuz. Hori, enpresek produktu eta zerbitzuak produzitzerako garaian, beren lantokieetatik gertuen dauzkaten errekurtsioak erabiliz lortuko da, honela ingurumen eta ekonomian inpaktuak gutxituz.

Ekonomia Zirkularraren helburuak berriz, kutsadura murriztea, ingurumena babestea eta ekonomia oparoa lortzea dira, honako hauek, iraunkortasunaren garapena dakartela bait dio joera honek.²³ Baina hainbat ikerketek, iraunkortasunaren kontzeptua historian zehar aldatzen joan dela erakutsi dute. Ondorioz, ekonomian, arlo sozialean eta beste hainbat sektoretan bere aplikazioa ezberdina izan da historian zehar, beharrak ere aldatzen joan baitira.

Gaur egun, iraunkortasunaren kontzeptua honela ulertzen da *“ekonomia, gizartea, ingurumena eta denboraren dimentsioak nahasiz, gaur egungo belaunaldien beharrak asetzea da iraunkortasuna, etorkizuneko belaunaldien aukerak arriskuan jarri gabe”* definizio hau kontuan izanda, produktu eta zerbitzuen produkzio katean zehar, hainbat estrategia aplikatu nahi dira materialak lortzera, berrerabiltzera, transformatzera, banatzera eta erabiltzera zuzenduko direnak.²⁴

Ekonomia Zirkularraren helburuak ezagutzeaz gain, garrantzitsua da helburu horiek lortzeko asmoz, zein eremu lantzen dituen eta nola lantzen dituen jakitea.

²² ¿Qué es la economía azul y que la hace importante en la actualidad? <https://economia3.com/que-es-economia-azul/> (Azken kontsulta:2022/05/04)

²³PRIETO-SANDOVAL Vanessa, JACA Carmen, ORMAZABAL Mara. *Economía circular: Relación con la evolución del concepto de sostenibilidad y estrategias para su implementación.* https://dadun.unav.edu/bitstream/10171/53653/1/Economia_Circular.pdf (Azken kontsulta: 2022/05/04)

²⁴PRIETO-SANDOVAL Vanessa eta beste, aip ob; (86-87 orr) https://dadun.unav.edu/bitstream/10171/53653/1/Economia_Circular.pdf (Azken kontsulta: 2022/05/03)

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

Eskuratzea. Industriek beren inguruko errekurtsioak nola eskuratzen dituzten ezagutzea. Hau da, enpresek duten errekurtsio biologiko eta teknikoaren erabilera eraginkorrago eta arduratsuagoa izateaz arduratzen da Ekonomia Zirkularraren arlo hau. Hau, enpresek beren hornitzaile eta erabiliko dituzten materialak aukeratzeko garaian, ingurumenean ondorio negatibo gutxien sortuko dituenak aukeratuz lor daiteke adibidez.

Eraldapena. Enpresek errekurtsio naturalak eskuratzean, produktu eta zerbitzuak ahalik eta modu iraunkorrean egikaritu ahal izteko aukera eduki dezaten, praktika eta teknologien berrikuntza eta hobekuntzak sustatzera zuzentzen da esparru hau.

Zabalzea. Fase honek, enpresak bere produktu edo zerbitzua bezeroari entregatzen dion momentuarekin du zer ikusi. Hau da, enpresak bere produktuak ingurumenerako modu jasangarri batean entregatzen saiatzea bermatzea du xede; produktuen hontziak material jasangarriaz eginez, garraioa ez oso kuxkakorra edo efizienteak erabiliz etab.

Erabilera. Behin produktuak bezeroaren eskutara iristean, produktuaren erabilera kontziente eta egokia izan behar dela dio Ekonomia Zirkularrak. Honek esan nahi duena da, produktuaren erabilerarako energia behar izanez gero bere kontsumoa kontrolatu edo produktua berrerabiltzea komenigarria dela. Berrerabilera, produktuak bigarren eskuan eman edo bigarren eskukoak eskuratuz, etxeko tresneriak konponduz etab. lor daiteke.

Baina, enpresek ere badute zeregina arlo honetan. Gaur egun, negozio modelo edo metodologiak duen berrikuntzarako beharra nabarmena baita eta behar horren aurrean bi ideia nagusi planteatzen ditu ekonomia zirkularrak; alde batetik, behin produktua erabili ostean itzultzeko aukera ematea enpresak bezeroari, honela produktuaren bizitza edo erabileraren zikloa zabalduko baita. Beste aldetik, “produktuaren zerbitzu sistema” izeneko modeloa sustatzeko ideia proposatzen du Ekonomia Zirkularrak. Modelo honetan, ondasun baten usufruktua kontratatu ahal izango luke bezeroak eta enpresak ondasunaren kudeaketa eta jabetza mantenduko lituzke.

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

Berreskuratzea. Produktu eta zerbitzu ezberdinen erabileran sortu diren hondakinak berreskuratzeke helburua du alor honek. Hau, errekurtsio biologikoak biosferara itzuliz edo errekurtsio tekniko moduan prozesu industrialean erabili edo berriro integratuz lor daiteke.²⁵

Nahiz eta Ekonomia Zirkularrak bere helburuak zeintzuk diren argi adierazi. Enpresa eta bezeroek helburu hauek betetzerako garaian influentzia handia sortzen dute. Horregatik, kontuan izan behar dira, enpresak behar hauen aurrean jarduteko dituen hiru moduak, bere interesaren arabera izango direlarik: mikro influentziak, enpresak beren prozesu eta praktiken hobekuntza indibiduala, beren produktuen diseinu ekologikoak, beren kontsumo eraginkorra... dute ardatz; meso influentziak, erakundeak sarean lan egiten dute hemen, errekurtsioak elkarbanatuz, hondakinak berrerabiliz eta birbaloratuz... Hau da, elkar lanean arituko dira erakunde ezberdinak; azkenak, makro influentzia, eremu lurraldetar zehatz batetako erakunde eta entitateak ekimenetan parte hartuz elkarrekin jarduten dutenean da (hiri ekologiko edo berdeetan adibidez).

Beraz, Ekonomia Zirkularra gaur egungo behar nagusienetako den iraunkortasunaren garapena lortzeko bide garrantzitsua da, izan ere ekonomia adar garrantzitsua da jasangarritasuna lortzerako garaian eta korrante honi esker, material eta energiaren zikloak eten eta jada gure eskura dauzkagun errekurtsioak behin eta berriz modu jarraituan berrerabilitea lortu nahi da. Modu honetara, errekurtsioaren esplotazioa eta ingurumenari sortuko litzaizkiokeen kalteak gutxituz eta baita negozio eta erroka berriak sortuz.

Bi korranteak aztertu ondoren, konklusio modura, esan liteke Ekonomia Zirkularrak eta Ekonomia Urdinak antzekotasun handiak dituztela, biak ekonomiaren iraunkortasunerantz zuzentzeko xedea baitute. Baina, Ekonomia Urdinak proposatzen duen sistema ekonomikoa lineala da. Bere ideia nagusia, ekosistema naturalen jarrerak imitatzea eta lan sistemara jarrera horien ekarpena egitea da. Horretarako, hondakinen sorrera ahalik eta gehien murriztu eta sortzen den apurra transformatu edo aprobetxatu egingo ditu, prozesu ekonomikoan lehengai modura berrintegratuz.

²⁵PRIETO-SANDOVAL Vanessa eta beste, aip ob (90-91). Eskuragarri: https://dadun.unav.edu/bitstream/10171/53653/1/Economia_Circular.pdf (Azken kontsulta: 2022/05/03)

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

Ekonomia Zirkularrak proposatzen duen sistema aldiz, ondasun eta zerbitzuen produkzioan zehar sortzen diren hondakinei probetxua ateratzeaz arduratzen da. Hau da, gaur egungo ekonomiaren sistema linealetik urruntzen da, “Erabili eta bota” jarreran oinarritu ordez, prebentzio, berrerabilera, konponketa eta birziklapenean oinarritzen da²⁶. Izan ere, gaur egungo sisteman, ondasun eta zerbitzuen produkzioak ingurumenarentzat kostu negatibo eta handia dakar, eta Ekonomia Zirkularrak kostu hori gutxitzeko asmoz, errekurtso eta materialen bizitza luzatzearen eta horiei bigarren erabilera bat ematearen alde apustu egiten du. Honi esker, lehengaien, uraren eta energia iturrien desaprobetxamendua ekidin eta horien kontsumoa murriztuko da.

E. Ekonomia Zirkularreko Hondakinen eta Lur Kutsatuen legeak Europako Zuzenbidearekiko duen lotura

Europar Parlamentu eta Kontseiluaren 2008/98 Hondakinei buruzko Zuzentaraua, 2008ko azaroaren 19an onartu zen Europar Batasuna gizarte birziklatzaile batean bihurtzeko asmoaz eta hondakin mota ezberdinen artean jarduterako orduan kontuan izan beharreko lehentasunenzko hierarkia printzipio bat ezarri zuen²⁷. 2011. urteko uztailaren 28ko 22/2011 Legea sartu zen indarrean Espainiar estatuko eremuan, hondakin eta lur kutsatuei buruzkoa dena eta arestian aipatutako Zuzentarauaren hainbat printzipio eta kontzeptu barneratu zituen, hierarkiaren printzipioa adibidez. 2015ean Europako Komisioak Ekonomia Zirkularrari buruzko Akzio Plana onartu zuen, bertan hainbat neurri biltzen ziren, baina horietako bat Europar Batasuneko Hondakinei buruzko araudia ikuskatzea eta araudiak onartzea zenez, 2018an 2018/851 Zuzentaraua onartu zen, ekonomia zirkularraren erronkan aurrera egiteko, armonizatzeke, informazioa hobetzeko eta hondakinen inguruko zuzendaritza indartzeko. Aipatutako zuzentaraua Espainiar ordenamenduan onartuz zen, hondakinen hierarkia printzipioa indartu, hondakinak jasotzeko metodoak barneratu eta kutsatzaileei erantzukizunak ezartzeko asmoz eta Bauhausarekin zer ikusi handia edukiko du lege berri honen filosofiak²⁸. Hori dela eta, Urdaibaiko Biosfera Erreserba eremua eta bere araudia

²⁶ ECOEMBRES. “Economía Circular en España” artikulua. <https://www.ecoembres.com/es/reduce-reutiliza-y-recicla/economia-circular-en-espana> (Azken kontsulta: 2022/05/05)

²⁷ AINHOA DE CALOS CASTILLO “Principales aspectos de la Ley 7/2022 de residuos y suelos contaminados para una economía circular” Ingurumen Zuzenbideari buruzko Aranzadi aldizkari digitala, Aranzadi editoriala 2022 urtea (zk.1/2022.)(1.orr).

²⁸ *Ekonomia Zirkularreko Hondakinen eta Lur Kutsatuen 7/2022 Legea (II. Aurretiazko Arrazoia)*, (BOE zk85, 2022ko apirilaren 9koa)

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

aztertzen diren lan honetan, zer esan handia izango du 7/2022 Legeal. Horregatik, geroago, Euskal Autonomia Erkidegoko Barne araudiaren ataleko aztergaien zati izango da behin eta berriz aipatutu den araua.

IV. ESPAINIAKO ESTATU MAILAN ERAGINDAKO ARAU-ALDAKETAK

Espainiar estatu mailan, Europako Paktu Berde eta Bauhaus berriaren filosofiarekin eta Ekonomia Berde, Urdin eta Zirkularrekin lotura estua duten hainbat araudi daude. Baina, hainbatetan esan bezala, gradu amaierako lan honen aztergaia nagusia Urdaibaiko Biosfera Erreserba denez, bere kontserbazioan eta garapen iraunkorraren sustapenean zer esan handia duten Natura Ondare eta Biodibertsitateari buruzko legea, Ekonomia Zirkularreko Hondakinen eta Lur Kutsatuen legea eta Bauhausaren filosofian oinarritzen den Arkitekturako Lege Proiektua aztertuko dira jarraian, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren araudiaren gain izan dezaketen eragina ikertu eta Euskal Autonomia Erkidegoko legediareki ezartzen dizkieten oinarriak ikusteko asmoz. Gainera Arkitektura Kalitatearen Lege proiektuak, sektore publikoko kontratazio arloan aldaketak dakartzala aipatu beharreko puntu garrantzitsua denez, hori ere aztertuko da.

A. Arkitektura kalitatearen lege proiektua eta bere ekarpena

Arkitektura, gizartearen bizilekuak materializatzen dituen adierazpen fisikoa izateaz gain, ekintza kultural bat ere bada. Identitate eta sentsibilizazio arazo indibidual eta kolektiboetan ekinez ekinez, gizartearen egoera isladatzeko gaitasuna duen jarduera da.

2018ko Davos-eko Deklarazioan, arkitekturaren inguruan honako hau adierazten da “ *Ez da posible kultura abiapuntutzat hartu gabe, garapen bakeitsu, iraunkor eta demokratiko bat lortzea eta ondare kulturala babestu, erabili eta mantentzeko dugun gaur egungo modua oso garrantzitsua izango da etorkizuneko garapenerako.*”²⁹. Adierazpen honi esker, argi ikus daiteke arkitektura interes orokorreko ondarea dela eta boter publikoek hori onartzeaz gain ondare kultural hau babestu, sustatu eta zabaldu egin behar dute interes orokorrak lortzeko

²⁹CSCAE, Espainiako Arkitektuen Kolegioko Kontseilu Nagusia. *Kulturako ministroen 2018ko urtarrilak 21 eta 22ko Konferentzian eindako Davoseko Deklarazioaren bertsio laburtua.* (4 orr.)

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

asmoa duten einean. Horregatik, Arkitekturaren Kalitateari buruzko Lege Proiektu bat onartu da eta honek, arkitektura jarduera multidisziplinartzat hartzen du, non hainbat profesionalak beren jakintzak aportatuko dituzten besteenak errespetatuz (II-III Aurretizko Arrazoiak).³⁰

2022 urteko urtarrilaren 28ko Arkitekturaren Kalitateari buruzko 121/000086 Lege Proiektu hau, ekonomiaren, energien eta ekologiaren trantsizioa lortzeko asmoz planteatua izan den legezko instrumentua da. Honi esker, ingurumena, ekonomia eta gizartearen iraunkortasunari erantzutea lortuz.

Espainiar Agenda Urbanoarentzat, marko estrategikoa da Lege Proiektu hau, eta Europako 2030eko Agendarekin eta Nazioarteko beste hainbat Agenda Urbanoekin bateragarri izateaz gain, eta erreferentziatzen ere balioko du ekonomia, gizarte eta ingurumenaren iraunkortasuna lortu ahal izateko.

Lege Proiektu hau, bere edukiori esker, Europako beste hainbat ekimenekin elkartzen da. Zeinak, Europako ondare kulturalaren kontserbazioa lortzeko asmoz sortu diren, landa eta hiri eremuetan etorkizunari forma emanez. Ekimen horien artean, arestian aztertutako Europar Batasuneko Bauhaus Berria dago. Bauhausak, hiri eta landa eremuak transformatzeko politikak eta Europako Paktu Berdearen estrategia indartzen ditu, ekonomia garbi eta zirkular baterantz trantsizioa egiteko, biodibertsitatea babesteko, kontaminazioa murrizteko eta berrikuntzak sortzeko asmoz. Horretarako, etorkizunerantz begira eraikuntza ekologikoak sortuz eta hiri eremuak birsortzea lortuz.

Lege proiektu honen zer egin nagusia, arkitekturaren kalitatea babestea, sustatzea eta zabaltzea da eta hori helburu ezberdinak betez lortuko da, Urdaibaiko Biosfera Erreserbarekin lotura dutenak honako hauek izanez; ondare arkitektonikoak sustatzea, balora kultural, ingurumen eta sozial handia baitute; elementu eta multzo arkitektonikoen kontserbazioa sustatzea, duten balore bereziagatik objektu nazional eta nazioartekotzat hartu direnena zehazki; ikerketak, berrikuntzak, digitalizazioa, industrializazioa, sorkuntzak eta teknika tradizional, zein tokiko teknikak bultzatzea; disziplina ezberdinen parte-hartzea eta elkarlana

³⁰Arkitekturaren kalitatearen 121/000086 Lege Proiektua. Gorte Orokorraren Aldizkari Ofiziala 2021eko urtarrilaren 28a (zk.86-1.)

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

sustatzea; iraunkortasun sozial, ekonomiko eta naturala sustatzea; arkitekturaren zikloa aztertu eta iraunkortasuna bultzatzea; eta irisgarritasun unibertsala piztea.

Beraz, arkitektura interes orokorreko ondasun bat den heinean, nortasun kulturala sortu eta bizi kalitatea, ongizatea, osasuna, lan arloko babes eta klima aldaketa garaian egokitzapena bermatzeaz arduratuko da. Hori dela eta botere publikoak izango dira, eskuduntza eta funtzioak errespetatuz ondasun hau babestu, sustatu eta zabaltzearen arduradunak (1-3 art.).

Arestian aipatutako babespen eta sustapenerako, hainbat politika burutuko dituzte botere publikoek, baina politika horien oinarrian printzipio bat egongo da, arkitekturaren kalitatearen printzipioa. Printzipio honek, politika sektorialetan eta plan estrategikoetan zeharkakotasun eta integrazio baloreak kontuan izatea eta lurraldearen orekarako gardentasuna, lehiakortasuna eta inklusio soziala kontuan izatea galdatzen du.

Arkitekturaren kalitatearen printzipioa bermatzeko, irizpide hauek jarraituko beharko dira beste hainbaten artean: eraikuntzak, beren erabilerarako egokitzea, beren malgutasuna, moldakortasuna eta beharretara eta bizimodu berrietara egokitzea; arkitektura, hiriko paisaia armonizatzea; arkitektura jasangarritasun sozialarekin, ingurumenekoarekin eta ekonomikoarekin elkar lanean aritzea; naturako errekursoak optimizatzea, eraikuntzetan erabilitako materialen bizi-iraupena, berrerabilpena eta birziklapena planifikatuz; eta azkenik, energia efizienteagoa izateko, karbono arrastoak gutxitzeko, ingurumenaren babesteko eta klima aldaketara egokitzeko gaitasuna izatea (4art.).

Arkitekturaren kalitatearen printzipioa errespetatu eta aipatutako irizpideak jarraitzeaz gain. Botere publikoek beren eskuduntzen markoaren barruan, beharrezko neurriak hartuko dituzte arkitektura babestu, sustatu eta zabaleko. Neurriak ezartzeaz gain, parke publikoetako eraikinen birgaikuntza planifikatu eta sustatuko dute.

Botere publikoek arkitekturaren alde duten beste baliabide bat, beraiek zuzentzen dituzten obretan, honako hau bermatzeko duten aukera da; iraunkortasuna errespetatzen dela, ikerketak egiten direla, garapen bilatzen dela eta berrikuntzak aplikatuko direla. Hori guztia

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

bermatzeaz gain, eraikuntza prozesuaren efizientzia, lehiakortasuna, babesa eta kalitatera zuzendutako tresna teknologiko berriak erabiliko direla ziurtatu behar dute.

Beste egiteko bat, eraikuntza prozesuan parte hartuko duten disziplina ezberdinetako profesionalei formakuntza eta ezagutza teknikoak eskaintzea, ondoren lege honen helburuak betetzera zuzendu dezaten beren lana.

Aurreko paragrafoak, botere publikoek eraikuntza fasean parte hartuko duten profesionalei formakuntza emateari egiten zion aipamena. Baina, gizarteak arkitekturaren inguruan ezagutzak eskuratzea ere oso garrantzitsua da. Gizarteak alor honeta ikuspegi kritikoagoa eduki dezan, botere publikoek ezagutzak sustatzeko egitekoa edukiko dute. Ondorioz, biztanleariak eraikin bat erosteko garaian adibidez, kalitatezko obrak direla jakiteko aukera edukiko luke. Kontzientzia hau pizteko, bereizgarri bat ipiniko zaie lege honetako helburuak betetzen dituzten eraikuntzei.

Azkenik, Espainiar Administrazio Orokorrak akzio ezberdinak burutuko ditu politika ezberdinak indartzeko asmoz; arkitektura alorreko ikerketak, berrikuntzak eta hausnarketak indartzea; Espainian kanpo arkitekturari lan egien duten enpresa eta profesionalak laguntzea; arkitektura kalitatearen printzipioa errespetatuz obrak egin dituzten profesionalei sariak ematea; eta azkenik, eraikitako eta berriztatutako ondareen balorearen babesa eta sustapenaz arduratzea iraunkortasunaren printzipioarekin lotuz (5art.). Hau da, Bauhaus Berriaren filosofia arkitektura alorrean islatzea lortzeko erraztasun eta pizgarriak jarriko zaizkie arkitektu lan eta obretan jarduten duten profesionalei. Horri esker, iraunkortasunaren sustapena artearen alorrean bermatuko da.

Botere publikoen zereginak eta jomugak ikusi ondoren, arkitekturaren kalitatearen printzipioa errespetatu eta bermatzeaz arduratzen den zer esan handiko beste organo bat izango da aztergai jarraian; Arkitekturaren Kalitateari buruzko Kontseilua (6art.). Organo honen egitekoa, lege honen objektua diren gaien inguruan, kontsultak egitea eta aholkuak ematea da, nahiz eta ezagutzak trukatzeko plataforma moduan ere jardungo duen. Kontseilu honek, aldizkako bileren bitartez jardungo du, Pleno, Sekzio eta Ponentzietan. Bilerak, disziplina

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

ezberdinetako profesionalez osatuko direlarik; toki administrazioa, autonomietako administrazioa eta estatuko administrazioa ordezkatzuz bere integratzaileek.

Bere funtzio nagusiak, Arkitektura Kalitatea babestea, sustatzea eta zabalzeaz arduratzeaz gain, gizatea sentsibilizatzea, berrikuntzak sustatzea, eraikuntza prozesuen digitalizazioa, jarduera informatiboak burutzea eta aholkuak ematea ere izango dira.

Kontratugintza arloan organo honek, hainbat funtzio esanguratsu ditu: Arkitekturaren Kalitatea hobetzeko asmoz neurri berriak hartzea edo dauden neurriak berriztatzea; organo kontratatzaileei aholkuak ematea, arkitekturako proiektuak egiten dituzten profesionalekin egindako Administrazio Kontratuaren arloan; ordainketetarako tarifak zehaztea; kontratuen exekuzioan jardungo duten profesionalentzat formakuntza eta orientazio kurtsuak diseinatzea, Administrazio Publikoko Institutu Nazionalaren kolaborazioarekin... dira bere funtzioak, beste hainbaten artean.

Azkenik, nahiz eta ez izan organo bat, Arkitekturaren Egoitzaren figurari aipamena egingo zaio (7 art.). Figura hau, nazio eta nazioarteko mailan arkitektura zabaltzeko eredu moduko bat da eta funtzio batzuk betetzeko obligazioa izango du, arkitekturaren inguruko ezagutzak zabaltzera zuzenduak gehien bat. Arkitekturaren kontzeptua sustatu eta berari buruzko jakintzagaiak gizartera zabaltzea, Espainiar arkitektura eta arkitekto esanguratsuenen historia zabaltzea; Espainiar arkitektura nazioartean posizionatzea eta herritarren parte hartzea sustatzea Arkitekturaren Egoitza foru moduko batean bilakatuz, beste hainbat funtzioaren artean.

Amaitzeko, Arkitekturaren Lege Proiektuak estatu mailako arauetan sortuko duen aldaketaketen artean esanguratsuenetako bat aztertuko da³¹. Izan ere, Arkitekturaren Lege Proiektuko Azken Xedapenetan lehenak kontratazio publikoko arloan, sarreran esan bezala, sektore publikoko kontratuen legean aldaketak sortzen ditu³². Espainiar ordenamendu

³¹ *Arkitekturaren kalitatearen 121/000086 Lege Proiektua. (I Azken Xedapena).* Gorte Orokorren Aldizkari Ofiziala 2021eko urtarrilaren 28a (zk.86-1.)

³²2017ko azaroaren 8ko sektore publikoko kontratuei buruzko 9/2017 legea. Estatuko Aldizkari Ofiziala 2017ko azaroaren 9a (zk.272.)

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

juridikoan, Europar Parlamentu eta Batzordearen 2014eko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauen edukiak barneratzen baititu.

Sektore publikoko kontratuen iraupen eta prestazioen egikaritzan ematen da lehen aldaketa (29.7 art). Aurrerantzean, obra kontratuekiko edo hornikuntza kontratuekiko osagarriak diren zerbitzu-kontratuak bost urte baino iraupen handiagoa eduki ahal izango dute. Betiere, kontratu nagusian adierazten den epea gainditzen ez den bitartean. Kontratu nagusiaren kitapenera zuzendutako kontratuetan salbu, iraupena kitapenaren egikaritzari lotua egongo delako.

Bigarren aldaketa, proiektuen konkurtsoei aplikagarri zaizkien arau berezien eremu aplikagarrian gauzatzen da (183.3art.). Sektore publikoko kontratuei buruzko legeko aldaketaren ostean, ingenieritza, arkitektura eta urbanismo arloetako proiektuak egikaritzeko objektua duten zerbitzu kontratuetan, aipatutako legean aurreikusten den eraentza berezi bat aplikatuko zaie. Honela, organu kontratatzaileak ingurumen, paisaia, teknika, funtzio eta hainbat baldintza ezberdinen existentzia kontuan hartu beharko ditu kontratua burutzerako orduan, berrikuntza eta originaltasunaren garrantzia eskainiz eta horri esker, prestazio bat eskuratzeko aukera emanaz.

Hirugarrenik, arestian aipatu den konkurtsoko epai-mahaian eta bere erabakian sortzen da aldaketa (187.2 art). Epai-mahaia, profesionaltasuna, kontratuaren objektuaren espezializazioa, inpartzialtasuna eta parte-hartzaileekiko independentzia printzpioak errespetatuko dituzten pertsona fisikoez osatuko da aurrerantzean.

Azken aldaketa, zerbitzu kontratuei buruzko eduki eta mugen inguruan legeak arautzen duen artikuluan gehitzen den lerroalde berrian adierazten da (308.4 art). Obren proiektua eta zuzendaritza batera kontratatzea ahalbidetzen du, era indibidualean kontratatzeak kontratuaren objektu diren prestazioen kalitatean modu ezkorrean eragingo balu koordinazio eta jarraitasuna ezinezkotuz. Gainera, organo kontratatzaileak kontratazio bateratu hau egiteko eman diren inguruabarrak arrazoitu beharko ditu espedientean.

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

B. Ekonomia zirkularreko hondakinen eta lur kutsatuen legea eta ingurumenaren kontserbaziorako eskaintzen dituen baliabideak

Ekonomia zirkularreko hondakinen eta lur kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legea, hondakinak gutxitu eta hauen sorrera murrizteko, errekursoen erabilerak sortutako inpaktu globala gutxitzeko, ingurumena eta gizadiaren osasuna babesteko eta ekonomia zirkularrerantz trantsizio bat egiteko asmoz sortu da. Baita, ingurumen eta osasun arloan hainbat plastikok duten inpaktua gutxiatzeko asmoz ere. Beraz, lege honetako arauak aplikagarri zaizkie edozein motatako hondakinei, erabilera bakarreko plastikozko produktuei eta kutsatutako lurri³³. Hala ere, badu lan honetan kontuan eduki beharreko berezitasun bat. Lege honek ez ditu plastikoak arautzen, beren hondakinen bilketa eta hondakin horiek murrizketeko neurriak baizik. Baina Urdaibaiko Biosfera Erreserba kontserbatzerako orduan, lege honek ematen dituen baliabideak oso erabilgarriak izan daitezke. Hori dela eta, lege honetan Urdaibaiko ingurumenarekin zer ikusia izan dezaketen atal eta xedapenak landuko dira jarraian.

Onartu berri den arauak eskume-banaketa bat burutzen du (12 art.). Estatu mailako organoei dagokienez, Erronka Demografiko eta Ekologiaranzko Trantsizioaren Ministerioaren titularraren kargua onartzeko eskumena Gobernuarena da, eta titular honek honako funtzioak betetzeko eskuduntzak ditu beste hainbesteren artean: ekonomia zirkularren materialen estrategia eta planak egitea, hondakinen sorreraren prebentziorako programa estatuala egitea, hondakinen kudeaketarako planak egitea eta lur kutsatuen materialen strategiak sortzea; hondakinen kudeaketa eta murrizketarako Gobernuari gutxienerako helburuak ezartzea; hondakinen bilketa modu banatuan egitea, berrerabilerarako prestakuntza etab. ; Europar Batasunetik kanpo dauden herrialdeetatik hondakinak ekar daitezzen baimentzea eta funtzio zigortzaile eta berrikuskatzailea burutzea hondakin horiekiko; Europar Batasuneko eta estatuko araudietatik eratortzen diren hondakinen inguruko obligazioak betetzeko informazioa bildu, aktualizatu eta garatzea; eta, lege honen objektuarekin zerikusia duten beste legeen erabakien lankidetzat sustatzea.

³³Ekonomia Zirkularreko Hondakinen eta Lur Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legea (1.2 eta 3 artikulua), (BOE, zk 85, 2022/04/09)

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

Azkenik estatuari dagozkien azken eskuduntzak, ikuskapenak eta inspekzioak egin eta zehazpenak ezartzea da, legeek emango dizkien beste eskuduntzez gain eta Administrazio Publiko Orokorrari dagozkio.

Autonomia Erkidegoen eskuduntzetara joz, AAEE eta Zeuta eta Melillak bere lurraldetan burutzeko eskuduntza zehatzagoak izango dituzte: Autonomi Erkidegoko mailan lur kutsatu eta ekonomia zirkularrari buruzko estrategiak onartu eta hondakinei prebentzio eta kudeaketa buruzko planak onartzea; hondakinei buruzko informazioa erregistratzea; hondakinak sortzeagatik zigorrak ezartzea, baimenak ematea, inspekzio eta ikuskaritza lanak egitea; beste herrialdeetatik ekarriko diren hondakinen garraioak baimentzea; eta lankidetzaren hitzarmenak sinatzea, toki entitateetan zerbitzuak kudeatu ahal izateko inbertsio eta gastuak bideratzeko. Argi dago, Autonomia Erkidegoen eskuduntzak, Erronka Demografiko eta Ekologiaranzko Trantsizioaren Ministerioaren titularraren oso antzekoak direla, AAEErenak lurralde eremu zehatzagoetara mugatzen direla izanez ezberdintasuna.

Toki entitateek, Zeuta eta Melillako hiriek eta dagokienean foru diputazioek berriz, eskuduntza hauek dituzte, Ministerioa eta AAEErenetik ezberdinagoak eta zehatzagoak. Lehenik, toki entitateek hondakin domestikoen bilketa, garraioa eta tratamendua bermatzeko obligazioa dute, estatuko eta autonomietako legediak adierazitakoa errespetatuz. Hori lortzeko metodoa, hondakinak biltzeaz arduratuko den toki zehatz bat jarritz egingo da, zerbitzu hau dohakoa izanez. Bigarrenik, 5000 biztanletik gorako herrietan, hondakinak kudeatzeko programak onartzeko eskuduntza dute, plan autonomiko eta estatalak errespetatuz betiere. Ministerioa eta AAEEk bezala, informazioa biltzeko eta aktualizatzeko zeregina eta funtzio zehatzaile eta ikuskatzailea ere izango dute toki entitateek. Aipagarria da, legearen zazpigarren xedapen gehigarriari esker, toki entitateek zerbitzu prestazioen kontratura egokituko dituztela obren kontzesio kontratuak, obra eta zerbitzuen kontzesioenak edo eskuduntza lokaleko beste hondakinen bilketa eta trataera zerbitzuak (VII. Xedapen Gehigarria).

Eskuduntzak aipatu ondoren, argi ikus daiteke Estatuko Ministerioak, Autonomia Erkidegoek eta toki entitateek eskuduntzak dituzten alorrak berdinak direla, eta beraien jarduteko eremua dela ezberdintzen dituen. Ministerioak ahalmen orokorrak ditu eta Autonomiek eta toki

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

entitateek dagokien esparruan, Estatuko organuek burututako funtzioak, planak, estrategiak eta planak beren esparru lurraldetarrera egokitzen jardungo dute, zehaztapenak eginez.

Erabilera bakarreko plastikoak ingurumenean duten inpaktua eta beren kontsumoa murrizteko asmoz, legeak produktu mota ezberdinei, neurri eta trataera ezberdina emango die (V.Titulua). Erregela honi esker, Administrazio Publikoak plastikozko poltsek sortzen dituzten hondakinak murriztu, ekidin eta kudeatzeko neurriak hartu ahal izango dituzte eta plastikozko hontzien kasuan, hondakin moduan erretiratzean ondorengo erregeletan adierazitako trataera eman beharko zaie, kontsumitzaileak hauek entregatzeko obligazioa duelarik (II. Xedapen Gehigarria).³⁴

Erabilera bakarreko plastikoaz egindako produktuak 2022an izan duten kontsumo kopuruarekin alderatuz, 2026an %50eko murrizketa bat eman dezaten lortu nahi da eta 2030ean %70ekoa³⁵. Kontsumoa, kopuru horietara murriztu dadin, produktuen merkaturatzean parte hartzen duten agenteek, plastikoa ez den beste alternatiba birziklatzaile batzuen erabilera sustatuko dute. Murrizketaren kontrolaz Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikoaren Ministerioa arduratuko da Komunitate Autonomoekin batera jardunez, eta lortutako emaitzen arabera, berrikuspenak egin eta murrizketa lortzeko bide berriak ezar ditzakete. Azkenik, Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikoaren Ministerioak produktuen kontsumoa murrizteko asmoz hartu diren neurriak adieraziz txosten bat egin eta Europako Batzordeari jakinaraziko dio, ondoren txosten hau publikatuz .

Lege honek, erabilera bakarreko plastikoz eginiko produktuak murriztea jomugatzat eduki arren, badira beren merkaturatzea debekatu den plastikozko hainbat produktu: plastiko oxodegradagarriaz egindako produktuak, bost milimetro baina gutxiagoko plastikozko mikroesferak eta plastikozko kotoi-zotzak, plastikozko mahi-tresneria, platerak, lastotxoak...

Plastikoz eginiko beste produktu batzuei aldiz, merkaturatuak izan aurretik bereizgarri bat ezarri beharko zaie, argi ikusi ahal izateko modukoak. Honela, kontsumitzaileak kontziente

³⁴DE CARLOS CASTILLO AINHOA “*Principales aspectos de la Ley 7/2022 de residuos y suelos contaminados para una economía circular*” Ingurumen Zuzenbideari buruzko Aranzadi aldizkari digitala, Aranzadi editoriala 2022 urtea (zk.1/2022.)-(2.orr)

³⁵Aip.ob. DE CARLOS CASTILLO AINHOA “*Principales aspectos de la Ley 7/2022 de residuos y suelos contaminados para una economía circular*”(3.orr)

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

izango dira erostear dauden produktuak duen plastiko kantitateaz, beren hondakinak kudeatzeko aukera ezberdinez eta produktuak sortuko dituen hondakinek ingurumenean duten ondorioez. Bereizgarria eramateko obligazioa duten produktu hauek beste askoren artean: konpresak, tanpoiak, tabakoaren produktuak, edalontziak... izango dira (IV xedapen gehigarria d.).

Onartu berri den araua, birziklapenaz mintzatzen da, 3 litrorainoko edukia duten botilak eta beren tapoiak, modu bananduan bilduko direla ondoren birziklatuak izan daitezzen adieraziz³⁶. Horrez gain, birziklapen esparruan helburu batzuk ere zehazten ditu. 2023an, merkaturatu diren botilen %70a birziklatzea lortu nahi da. 2025an, merkaturatu diren botilen %77a birziklatzea. 2027an berriz, merkaturatu diren botilen %85a birziklapenera heltzeko xedea adierazten du eta 2029an, merkaturatu diren botilen %90a birziklatzera, kouru hauek pisuaz neurtuz neurtuko direlarik. Estatu mailan, 2023 eta 2027 urteetako helburuak betetzen ez badira, lurralde eremu osoan 2 urtez iraungo duen gordailu sistema bat jarriko da martxan 2025 eta 2029 urteetako helburuak beteko direla bermatzeko asmoz. Sistema hauek, plastikozko botilei aplikatzeaz gain beste edukiontzi batzuei ere aplikagarri izan dakizkieke.

Edari eta elikagaiak biltzen edo gordailatzen dituzten kaxa eta edukiontzien kontsumoa murrizteko asmoz, Gobernuak ekoizleari erantzukizuneko erregimen bat ezarriko dio, 2025eko urtarrilaren 1 baino lehen indarrean egon beharko delarik legearen esanetan. Ekoizleek erregimen honen esanetan, produktuen kostuz gain, honako balio hauek ere ordaindu beharko dituzte: kontzientziazio neurrien kostuak, hondakinen bilketaren kostuak eta hondakinen garbiketarako sortutako gastuak.

Ekoizleak ordaindu beharreko zenbatekoa, ezin izango da zerbitzu-prestazioaren balio ekonomikoa baina altuagoa izan eta parte-hartuko duten agenteek modu argi batean zehaztuko dute kopuru hori³⁷. Alde batetik, garbiketarako sortutako kostuen kalkulurako metodologia proportzionaltasunean oinarrituko da, zabalduko hondakin kopurutik abiatuz eragiketa. Beste alde batetik, administrazio gastuak ahalik eta gehien txikitzeko, urteroko

³⁶Aip.ob. DE CARLOS CASTILLO AINHOA “*Principales aspectos de la Ley 7/2022 de residuos y suelos contaminados para una economía circular*” (4.orr)

³⁷Aip.ob. DE CARLOS CASTILLO AINHOA “*Principales aspectos de la Ley 7/2022 de residuos y suelos contaminados para una economía circular*” (3 orr.)

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

zerga finantziero batzuk ezartzea aukera posible bat da. Azkenik, ekoizlearen erantzukizunezko erregimena ezarriko den beste arlo bat arrantza da³⁸. Arrantzarako tresnak berrerabiliak izan daitezten beren bilketarako kopuru minimo batzuk ezarriko dira eta plastikoz osatutako tresneriaren jarraipena egiteko ere, neurri batzuk zehaztuko dira. Ekoizleek, tresneria hauek sortu duten hondakinen bilketako gastuak ordaindu beharko dituztelarik.

Plastiko osoz egindako produktuen inpaktua gutxitu eta ezabatzeko asmoz sortutako azkeneko baliabidea, kontzientziazio neurriak dira. Neurri hauen helburua, kontsumitzaileak egoeraz informatzea eta plastikozko produktuen hondakinak murrizteko beharraz ohartaraztea da eta autoritate eskudunak arduratuko dira hauen erregulazioaz. Baina, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen antolakuntzaren lankidetzaz eginez ere, autoritateek neurri gehiago har ditzakete; birziklapenerako alternatibak, hondakinaren eraginak etb. gizarteari jakinarazteko aburuaz.

Amaitzeko, ingurumeneko inpaktu eta hondakinak gutxitzeko edo ezabatzeko xedeaz, legeak erregulatu dituen neurriak koordinatzeko beharra sortzen da, asko baitira baliabide edo neurri horiek. Gauzak honela, legeak behar horri erantzuten dio (62 art.). Aztergai den legean arautzen diren neurriak itsas zuzenbidearekin, planekin eta programekin batera jardun beharko dute (V. Titulua). Horrez gain, ekoizlearen erantzukizunezko erregimena eta arestian azaldutako erabilera bakarreko plastikozko produktuen kontsumoa murrizteko erregelak, Europar Batasuneko elikagaiei buruzko legedia bete beharko dute, elikagaien higiena eta segurtasuna babesteko asmoz. Modu honetara, erabilera bakarreko plastikoak erabili ordez, ingurumenarentzako iraunkorragoak diren aukera edo bide ezberdinak sustatuko dira elikagaien arloan.

Nahiz eta arestian plastikoen kontsumoa, plastikoen bilketa eta berrerabilera ikusi. Legeak lur kutsatuak ere arautzen dituela kontuan hartu beharrekoa da³⁹. Aurretik indarrean zen erregimen juridikoa aplikatzen zaie jarduera kutsagarriei eta hala deklaratzeko prozesuei, lur

³⁸Aip.ob. DE CARLOS CASTILLO AINHOA “*Principales aspectos de la Ley 7/2022 de residuos y suelos contaminados para una economía circular*”(3.orr)

³⁹Aip.ob. DE CARLOS CASTILLO AINHOA “*Principales aspectos de la Ley 7/2022 de residuos y suelos contaminados para una economía circular*” (4 eta 5 orr.)

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

kutsatuen inbentarioari eta deskontaminazio eta lurren berreskuperari. Baina, lege honen berritasuna, lur bat kutsatu moduan deklaratzek, eremuan ematen ari diren eraikuntza eskubidea eta beste hainbat lur erabilera bertan behera geratzea dakarrela da. Horrez gain, deskontaminazio jarduerak burutu beharko dituzte erantzuleek eta hiru urteko epea edukiko dute hori lortzeko. Gainera, Lur Kutsatuen Borondatezko Deskontaminazioen Estatuko Inbentarioa egin beharko da eta bertan, Autonomia Erkidegoek berreskurapen eta dekontaminazio guztiak erregistratu beharko dituzte.

Aztertu den legeak hondakinen sorrera murrizteko eta plastikoen inpaktu kontsumoa gutxitzeko arautu dituen erregelak aztertu ondoren. Neurri horiek betetzeko obligazioaren ez-betetzearen kasuan ezarriko den zehapen-erregimena ere aurreikusten du (IX Titulua). Obligazioa ez betetzeagatiko erantzuleak, produktuaren ekoizlea, edukitzailea edo hondakinen kudeatzailea izango dira, pertsona fisiko naiz juridikoak izan daitezkeelarik.

Arau hausteez izaera administratiboa izango dute eta hiru mailatakoak izan daitezke larria, oso larriak eta arinak. Arau hauste oso larriak, legean adierazitakoaren kontra jokatzeko, hondakin arriskutsuak bere horretan uztea edo beren kudeaketa abandonatzea, entitate publikoek legean adierazitako jardueraren bat baimenik gabe edo informazio arriskutsua publikatuz burutuzean etab. izango dira eta hirugarrenen osasunean edo ingurumenean kalte larri edo arrisku larriak sortu beharko dituzte. Izan ere, kalte edo arrisku larri horiek sortuko ez balituzte, legeak arau hauste larrien klasifikazioan sartuko ditu arau-hauste horiek. Azkenik, arau-hauste arinak zerrendatzen ditu; administrazioari dokumentuak aurkeztean atzeratzea; diru kopuru txikiko arau haustea, betiere izaera larri edo oso larrira iristen ez diren bitartean; hondakin domestiko eta ez komertzial ez arriskutsuen entrega arauak adierazitakoa errespetatu gabe egitean etab. dira.

Arau-hausteagatiko zehapena ezartzerako orduan, Administrazio Publikoak egitatearen eta zigorraren artean kausalitate harremana eta proportzionalitatea daudela bermatu beharko du autorearen intentzio, osasunean edo ingurumenean sortu den kaltea, egoera eta beste hainbat inguruabar baloratuz, berak baitu potestatea. Behin balorazioa eginda, arau-hauste mota bakoitzak zehapen mota ezberdinak edukiko dituzte: Oso larriak, legeak aurreikusitako jarduerak burutzeko inhabilitazioaz (1-10 urte bitartean), baimenak kentzeaz edo eteteaz

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

(1-10 urte bitartean), instalazio edo gailuen klausura tenporala eta 100.001 euro eta 3.500.000 euro arteko isunaz zigortzen dira; larriak berriz, 2.001 eta 100.000 euro arteko isunaz, legeak adierazitako jarduerak betetzeko urte bete baino gutxiagoko inhabilitazioa eta baimena urte beterarteko epean suspenditu edo kentzea; azkenik arau hauste arinak, 2.000 euroarteko isunak zigortuko dira. Hondakin arriskutsuen kasuan, 20.000 eurotara igo ahal izango duelarik isunak eta kasu batzuetan zehapen osagarri bat ere ezarri ahalko du Administrazio Publikoak beharrezkoa dela ikusiz gero.

Zehapenak arrazoitutako ebazpenaz ezarriko dira autoritate eskudunaren aurrean eta expeditanteari hasiera eman eta urte bete igaro baino lehen eman beharko da epaia. Baina, zehapen prozesuan zehar, arau-hausleak bere erantzunkizuna onartuko balu automatikoki zehapena ezarriaz amaituko litzateke prozedura. Arau-hauste eta zehapenak indarraldi epea dute eta ezberdinak dira arau-hauste motaren arabera; arinak, urte beteko epean; larriak, hiru urtetara eta oso larriak 5 urtetara amaituko da beren indarraldia, epea beti arau-haustea bete den egunetik kontatzen hasiz.

Zigorraz gain, zehapen-prozeduran zehar organo eskuduntzak ofizioz edo instruktoreak eskatuta aurretiazko neurriak ere har ditzake, ebazpenaren betearazpena bermatzeko eta hirugarrenen osasunean edo ingurumenean arrisku eta kalteak ekiditeko asmoz. Neurri hauek arau-haustearekiko proportzionalak izan beharko dute eta interesdunak aurrez entzun gabe izan izango dira, egoerak berehalakotasuna eskatzean salbu. Horrez gain,

Amaitzeko, legeak zehapen-prozeduran zehar aurreikusten duen beste instrumentu bat, kalte-ordainak eta indemnizazioak dira. Honek, arau-haustearen ondorioz sortutako ingurumeneko alterazioak lehengora itzularaztea suposatzen du. Arau-hausleak kalte-ordaina edo indenmnizazioa ordainduko ez balu, Administrazioak hertsapenezko-isuna edo exekuzio subsidiarioa galdatzeko aukera edukiko du, bere zenbatekoa arau-hausteagatiko isunaren $\frac{1}{3}$ -ekoa izan daiteke da gehienez eta obligazioa betetzeko epea adierazten duen errekerimendu orriaz aurkeztu beharko da.

C. Natura Ondarea eta Biodibertsitatea babesteko lege estatala Euskadiko Natura Ondarea babesteko legearen oinarri

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

2007ko azaroaren 13ko Natura Ondare eta Biodibertsitatea babesteko 42/2007 Lege estatala, Espainiar natura ondarea eta biodibertsitatearen kontserbazio, erabilera jasangarri eta sustapena helburu⁴⁰ dituen erregimen juridikoa zehazten duen araua da (Aurre titulua)⁴¹. Ere mu natural bat Natura Ondare edo babestutako espazio ingurune bihurtzeko, elementu natural esanguratsu eta desagertzeko arriskuan daudenak egon beharko dira bertan⁴². Honela, eremu hori babesteko beharra sortuko da eta Natura Ondare moduan deklaratu izango da. Adierazi den araua ikertzerako orduan, kontuan eduki beharko da EAEko esparruan ere badagoela helburu berdina duen lege bat, Euskadiko Natura Ondarea Babesteko azaroaren 25eko 9/2021 Lege autonomikoa. Jarraian, nahiz eta lege estatala aztertuko den eta geroago autonomikoa, bi arauen edukiak oso antzerakoak direla oinarritzat hartuz hasiko da aipatutako arauen ikerketa.

Natura ondareak eta biodibertsitateak gizartearen osasunarekin duten lotura estuari esker, zer-egin sozial garrantzitsua edukiko du lege honek garapen sozioekonomikoa lortzerako orduan. Helburu horiek lortzeko, ekosistema, biodibertsitate eta beste hainbat natura ondareko elementu kontserbatzera zuzendutako printzipio ezberdinak errespetatzen direla bermatu behar dute botere publikoek eta gainerako administrazio publiko edo organo eskudunekin kooperazio eta lankidetzan jardun eta informazioa elkar-trukatu beharko dute. Gainera, Natura-Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Batzorde bat ere eratuko da, estatu eta autonomi erkideoen artean kooperazio eta kontsulta organo moduan jarduteko. Botere publikoko organoen jardunaz gain, badago kontserbazio printzipioa bermatzeko beste

⁴⁰2007ko azaroaren 13ko 42/2007 Espainiako Natura Ondare eta Biodibertsitatea babesten dituen legea - Estatuko Aldizkari Ofiziala 2007ko abenduaren 14a (zk.299.)

⁴¹2007ko azaroaren 13ko 42/2007 Espainiako Natura Ondare eta Biodibertsitatea babesten dituen legea - Estatuko Aldizkari Ofiziala 2007ko abenduaren 14a (zk.299.)

⁴²Iturria: Kataluniako JANaren Administrazio-Auziko Salako 3.Sekzioak irailaren 19an emandako 657/2016 epaia (errekurtso zk. 517/2010): "ha infringido lo dispuesto en los artículos 27 y 30 de la Ley 42 / 2007 del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad , debido a que ha realizado una aplicación errónea de los requisitos que exigen las definiciones de "espacio natural protegido" y de "parque",[...]Esta afirmación es manifiestamente incierta, pues en la sentencia recurrida, al valorar las pruebas periciales, se llega a la conclusión de que no existen en ese sector o ámbito de la denominada Torre Negra **elementos naturales representativos, singulares, frágiles, amenazados o de especial interés ecológico, científico, paisajístico, geológico o educativo, ni está dedicado a la protección y mantenimiento de la diversidad biológica, de la geodiversidad y de los recursos naturales y culturales asociados**, sino que, por el contrario, según el propio perito biólogo propuesto como tal por el Ayuntamiento, existen áreas residenciales e industriales urbanizadas en un 6,45 % de la total superficie,[...] las características para estar incluido en la definición de "espacio natural protegido" ni en la de "parque", y, por consiguiente, el Tribunal a quo no ha conculcado lo establecido en los citados artículos 27 y 30 de la Ley 42 / 2007"

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

instrumentu bat, Natura Ondare eta Biodibertsitateari buruzko Estatuaren Plan Estrategikoa, zeinak natura ondarearen antolaketa ere balioko duen (12art). Plan honek, kontserbaziorako akzio, ezaugarri eta objektuen definizioak zehazten ditu eta natura ondare eta biodibertsitatearen egoeraren inguruko diagnostiko bat jasotzen du bere baitan.

Natura ondarearen plangintzarako instrumentu ezberdinak aurreikusten ditu zuzenbideak.⁴³ Alde batetik, lehen aipatutako Estatuko Plan Estrategikoa eta inbentarioa daude. Inbentarioan, Espainiar eremuan galtzeko arriskuan dauden animalia eta landare espezieak, babestutako eremu naturalak, Espainiar Estadistika Forestalak eta natura ondareari eta biodibertsitatearen inguruko ezagutzari buruzko dokumentu anitz biltzen dira, guzti horiek Natura Ondarea osatuko dutelarik. Plan Estrategikoan, Espainiar natura baliabideak bilduko eta diseinatuko dituzte Autonomia Erkidegoek bertan. Beste aldetik, naturako errekurtsoen antolaketaren planak daude, hauek, babestutako eremu baten barruan dauden espazioak bilduko dituzte, gero horiek ordenatu eta haiei buruzko planak egiteko, zeinak lehentasunezko izaera edukiko duen gainerako plan eta estrategiekiko.

Natura ondareko eremuak eta biodibertsitatea, naiz eta araudiak babestutako eremuak izan, beren erabilpena posiblea da, betiere modu iraunkor edo jasangari batean ematen bada. Horretarako, UNESCO-ren Gizakia eta Biosfera izeneko programa errespetatu beharko da, zeinak Espainiar estatuan aurkitzen diren Biosfera Erreserbetan oinarrituz sare bat sortzen duen (68 eta 69 art.)⁴⁴. Izan ere, Biosfera Erreserbak Natura Ondareko elementu bezala aurreikusten dira UNESCO-ren MAB programan, zeinak ekosistemako itsas eta lur eremuak izango diren eta Espainiar estatuarena izango da bere kudeaketa, bertako arte hartzea eta errekurtsu naturalen erabilera iruankorra bermatzea⁴⁵. Horrez gain, Europako Bauhaus Berriaren fiolosa jarraituz, kudeaketa modelo berriak probatzeko laborategi natural moduan ere ikusten dira. Beraz, argi dago UNESCO-k Biosfera Erreserba moduan ezagutu dituen eremu natural hauek duten garrantzia eta bertatik eratorritako Biosfera Erreserben Sarearen balorea.

⁴³ DE ROJAS MARTÍNEZ-PARETS FERNANDO. “*La Ley 42/2007. El estatuto de protección del patrimonio natural y la biodiversidad.*” Ingurumen Zuzenbideari buruzko Aranzadi aldizkaria, Aranzadi editoriala 2008 urtea (zk.14/2008.)(7- 10 orr.)

⁴⁴ 2007ko azaroaren 13ko 42/2007 Espainiako Natura Ondare eta Biodibertsitatea babesten dituen legea - Estatuko Aldizkari Ofiziala 2007ko abenduaren 14a (zk.299.)

⁴⁵ SANTAMARÍA ARINAS RENÉ JAVIER “*El concepto de reserva de la biosfera en Derecho español.*” ingurumen zuzenbideari buruzko Aranzadi aldizkaria, Aranzadi editoriala 2013 urtea, zk.25/2013 (7-8 orr.)

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

Biosfera Erreserben sarean, Urdaibaiko Biosfera Erreserba aurkituko da, beste erreserben artean. Espainiar Biosfera Erreserben Sarearen helburuak hiru dira. Lehena, erreserbak kudeatzeko eta antolatzekeo modelo orokor bat sustatzea. Bigarrena, erreserben arteko alderaketa eta informazio elkar-trukaketa bermatzea, gero beste erreserbei aplikagarri izateko horiek. Hirugarrena, arestian esan bezala, erreserbak batuta mantentzea gero hauek “laborategi natural” moduan erabili ahal izateko, bertan giza komunitate eta ingurumenaren arteko loturak aztertu ahal izateko ondoren. Helburu hauen betearazpena bermatu eta hainbat analisi eta diagnostiko elkar-trukatzen direla bermatzeko, Espainiar MAB Batzordea eratzen da. Gainera, batzorde honek Biosfera Erreserbetan eskuduntza duten organoen hierarkia sistema bat ere zehazten du.

Behin eremu natural bat Biosfera Erreserba deklaratu ostea kontserbazio, ekonomia garapen iraunkorrerako eta babes logistikorako funtzioak bete beharko ditu⁴⁶. Kontserbaziorako, paisaia, ekosistemak, espezieak eta bariazio genetikoak mantentzen jardun beharko da espazio hauetan. Garapen iraunkorra lortzeko berriz, ekologia eta kultura ikuspegietatik gizartea eta ekonomia modu jasangarrian garatu eta sustatu behar dira. Azken funtzioa betetzeko, hezkuntza, ingurumenaren gaitasunak eta ikerketak eta toki diagnostikoak egin beharko dira. Natura ondarea eta Biodibertsitatea kontserbatzea oso garrantzitsua da. Beraz, funtzio hauen betearazpenen sektore, botere publiko, komunitate lokal eta gizarteak parte hartzekomodelo ezberdinak daude, alde batetik parte hartze politikoa eta parte hartze administritatiboa bigarrenik, zeinaren barruan parte hartze organikoa, funtzionala eta kooperatiboa dauden⁴⁷. Modalitate guzti hauek, kudeaketa mekanismorako neurriak hartzera zuzenduko dira eta mekanismo hauek anitzak dira: Biosfera Erreserbako tanpoi eremuko giza jarduerak eta erabilerak kudeatzeko mekanismoak dira lehenak; Biosfera Erreserbako politika eta kudeaketa planak dira bigarrenak. Bi instrumentu horiek ez dira berdinak, politikak, Kudeaketa Planetan biltzen diren estrategia batzuk izango dira, zeinak eremu horiek kudeatzeko helburua izango duten; Autonomia Erkidegoek beren kompetentzien barruan eratuko dituzten instrumentuak, instrumentu hoiek, kontserbazio programak, garapen

⁴⁶Aip.ob. SANTAMARÍA ARINAS RENÉ JAVIER “*El concepto de reserva de la biosfera en Derecho español.*”(32-33orr.)

⁴⁷Aip.ob. SANTAMARÍA ARINAS RENÉ JAVIER “*El concepto de reserva de la biosfera en Derecho español.*”(17-29 orr.)

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

sozioekonomikorako programak, ekonomia finantziaketarako programak eta beste hainbat motatako programak izango dira; politika eta planak aplikatzera zuzendutako instituzio edo botere bat edukitzea, beste mekanismo bat litzateke; azkenik, kudeaketa integratzailea, iraunkorra eta parte hartzailea izatea lortzeko mekanismoak daude. Autonomia lokalaren printzipioan oinarrituz jardungo dute, adibidez udaletxeek.

Natura ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzeko eta zaharberritzerako orduan, beste sustapen mekanismo garrantzitsu bat finantziazioa eta pizgarriak dira (V. Tit.). Ingurumen arloko Ministerioak laguntza ekonomikoak emango dizkie Natura ondarea eta Biodibertsitatearen kontserbazioan lan egingo duten entitateei, baina horretarako, beren jardunek hainbat Autonomia Erkidegotan eragin beharko dute. Beste finantziazio edo kudeatzeko modu bat, Administrazio Publikoak kontserbatu nahi diren esparruen kustodia edo titularitatea lortzea izango da, honela, zesio eskubideak egikaritu ahal izango dituzte lur horik kudeatzeko asmoz. Azkena, Ekologia eta erresilientziaren errestituzio fondoa dago, zeinak, Natura Ondare eta Biodibertsitateko elementu naturalak modelo ekologikoago batetarantz trantsizionatzeko helburua duen, horretarako, finantziazio neurriak hartuz.

42/2007 Legeak sustatzen dituen kontserbazio printzipioa eta naturako elementuen erabilera jasangarria aztertzen amaitu aurretik, lege honek aurreikusten duen zehapen erregimenari eskainiko zaio arreta, EAEko Natura Ondarearen Babeserako legeak aurreikusten duen zehapen erregimenaren ia guztiz berdina dena (80-83 arts.). Arauak hainbat jarduera tipifikatzen ditu, beste hainbesteren artean honako hauek: produktu kimiko edo sustantzia kutsagarrien isurketa; flora eta fauna hondatu, suntsitu, komertzio ez justua eta beste hainbat jarduera kaltegarri; galtzeko arriskuan dauden habitaten suntsiketak; espezie inbaditzaileen edukitza, garraioa, trafikoa edo komertzioa, betiere baimenik gabe burutzean; babestutako eremu natural baten egoera kaltetu edo aldatzea...⁴⁸ Arau hauste hauek isun zigorra dakarte

⁴⁸ ITURRIA: AG Administrazio-Auzkiko Salako 1. Sekzioa 2021eko otsailaren 12ko galtzeko arriskuan dauden espezieen trataerari buruzko 2021/56495 autua (errekurtso zk. 3041/2020)

3041/2020 autua: *“Si para que una especie susceptible de actividad cinegética pueda ser incluida en el listado de especies cazables es exigible una motivación específica [...]. Si los legitimados para deducir la acción popular prevista en los arts. 22 y 23 de la Ley 27/2006, de 18 de julio (RCL 2006, 1442) , por la que se regulan los Derechos de Acceso a la Información, de Participación Pública y de Acceso a la Justicia en materia de Medio Ambiente, lo están también para instar el reconocimiento del resarcimiento económico de los perjuicios medioambientales eventualmente causados y si, acreditados éstos, es conforme a derecho acordar su resarcimiento condenando a la Administración a la ejecución de un programa medioambiental por importe equivalente al daño estimado.”*

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

beren larritasunaren arabera 100 euroatik 2.000.000 eurorartekoa izan daitekeelarik eta larritasuna, sortutako kaltea, jarduera burutu duen pertsonaren asmoa eta lortutako onura baloratzuz zehaztuko da. Isunaz gain, arau hausteak delituak direnean erantzunkizun penala ere ezarri ahal izango da, autoritate judizialaren zigorrak zigor administrazioa ordeztuz. Hala ere, arau-hauste eta beren zehapenek indarraldi epea dute, arau-hausteak beren larritasunaren arabera bi urte eta 5 urte bitartean indargabetuko direlarik eta zehapenak berriz, urte bete eta bost urte bitartean.

V. EAEN INGURUMEN ARLOAN ONARTU BERRIAK DIREN ARAU-XEDAPENAK

Espainiar barne-araudian, Europar Batasuneko araudiarekin lotura duten arauen kopurua oso anitza da, nahiz eta lan honetan zehar aztertu berri diren legeetan eta lege proiektuan oinarritu arreta gehien bat.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionean, hemen ere baditugu onartu berriak diren Bauhausaren filosofiarekin eta Europako Paktu Berdearekin lotura estua duten arau-xedapen estatal horien ildo jarraitzen dutenak. Arau horiek, oso garrantzitsuak dira lan honetan, Urdaibaiko Biosfera Erreserbak duen kokapenaren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko Bizkaiko probintzian kokatzen baita. Horregatik, bertako beharrak erantzuterakoan, esparru natural horren babespean eta administrazioan zer esan handia dute atal honetan aztergai diren Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko 10/2021 legea eta Natura Ondarea Babesteko 9/2021 Legeak.

Izan ere, arau hauek oso berriak dira, baina baita garrantzitsuak ere Euskal Autonomia Erkidego mailako zuzenbidean egin berri dituzten ekarpenei esker. Beraz, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako legedia aplikatzerako orduan eduki dezaketen zer esan handiagatik eta duten kutsu berriztatzaileagatik lan honetan, merezi duten tokia eskainiko zaie.

A. Euskadiko Natura Ondarea babesteko legea

Euskadi biodibertsitate handiko tokia da bere kokapen geografikoari esker eta Europar Batasunaren interesekoak diren habitataren %35a, espezie eta faunaren 21%a eta %2flora

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

aurkitzen dira bertan. Horregatik, Europar Batasunak 2000. urtetik aurrera ingurumenaren markoko legedia garatu dadin agindu asko eman ditu eta honek Euskadiko legedia gaur egungo eskakizunetara eguneratzeko beharra ekarri du. Inguruabar hauetan, Natura Ondarea Babesteko legea onartu da beste hainbat arauen artean.

Natura Ondarearen Babeserako azaroaren 25eko 9/2021 Legea, espazio naturalak eta biodibertsitatea babesteko onartu da. Aldi berean, ingurumena administrazioak kudeatu eta aldaketa klimatikoaz arduratuko diren politika transbertsalekin integratzea du helburu, ekonomia eta gizartearen garapenerantz zuzenduz.

Natura Ondare kontzeptua (1.2 art), Euskadiko ekosistema, espezie, ondare, errekurtsio eta zerbitzu naturalak eta biodibertsitate eta geodibertsitate iturriak barne-biltzen dituen da, lege honen arabera⁴⁹. Balore hori, natura ondareek Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenaren, paisaiaren, zientziaren eta kulturaren ikuspegitik duten balioagatik aitortzen zaie.

Euskadiko Natura Ondarearen barruan, hiru kategoria bereizten dira (37art.). Lehenengoan, babestutako eremu naturalak daude, horiek, parkeak eta monumentu naturalak izango dira. Bigarren kategorian, 2000 Ingurumen Sareak babestutako eremuak daude, hegaztientzat babestutako eremuak adibidez. Azkenik, nazioarteko instrumentu juridikoen aplikazioak babesturiko eremuen kategoriak aurkitzen dira; biosfera erreserbak, nazioarteko araudiarentzako garrantzia duten hezeguneak eta geoparkea. Beraz, Urdaibaiko Biosfera Erreserba Natura Ondarearen zati denez, aztergai den legeak babestuko du.

Urdaibairen kasuan, legedi espezifikoa, garapenerako araudia eta kudeaketa eskuduntza propioak ditu, baina lege honek aurreikusten duen araudia ere aplikagarri zaio Biosfera Erreserba honi. Natura Ondarearen Babeserako legeaz gain, 2000 Natura Sarean dauden eremuak kudeatzeko emango diren aginduak eta dekretuak ere Urdaibaiko Biosfera Erreserban aplikatu beharko dira eta Urdaibaiko Plan Gidarian integratu, koherentzia bat mantentzeko. Baina, 2000 Natura Sarean kokatzen diren eremu naturalak kudeatu eta babestera zuzendutako agindu horien kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura

⁴⁹Euskadiko Natura Ondarea Babesteko 9/2021 Legea - Euskadiko Agintaritzak Aldizkaria 2021eko abenduaren 10a (zk.246.)

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

Ondarearen arloan eskuduna den sailak onartu beharko ditu Plan Gidarietan integratuak izan baino lehen.

Beste hainbat Natura Ondareko eremuren artean, Biosfera Erreserbak babestez arduratzen den lege hau Euskal Administrazio Publikoek Natura Ondarearen babeserako politiken alde eginez eta jarraian aztertuko diren hainbat printzipio bermatuz aplikatuko dute (3art.).

Lehen printzipioa, Natura Ondarea kontserbatzea, mantentzea, modu iraunkorrean erabiltzea eta hobekuntzak sustatzearekin lotzen da, hori lortzeko, hainbat neurri ezarri direlarik. Hasteko, kontserbazioari, lurralde ordenantza eta hiri ordenantzen aurrean lehentasuna emango zaio eta natura ondareari eta biodibertsitateari buruzko sektore politikak errestauratu eta hobekuntzak barneratuko dira. Beste neurri bat, natura ondarearen kontserbazioa erraztuko duten pizgarri positiboak ezartzea eta negatiboak izan daitezkeenak ezabatzea da, entitate pribatuen ekimena lortzeko asmoz. Adibidez, enpresei abantailak dakartzan neurri fiskalak ezartzea, beren parte hartzea eskuratzeko asmoz. Azken neurria, errekurtsio naturalen erabilera jasangarria izan dadin, modu ordenatu batean erabiliko direla bermatuko duen kudeaketa planak sortzea da. Honi esker, oraingo eta etorkizuneko generazioei kalte ekonomiko eta sozialak sortzea ekidin eta beren beharrak asetzeko errekurtsio nahikoa izango dituztela ziurtatuko da.

Bigarren printzipioa, natura ondareak erabiliko dituzten erabiltzaileei eta Natura Ondareen kudeaketa dagokien entitate publikoei zuzentzen zaie, lankidetzeta eta koordinazio printzipioa. Alde batetik, legeak bestutako eremuetan bizi diren herritarren eta entitate publikoen parte-hartzea eta lankidetzeta sustatu nahi da, kontserbazio jarduerak burutzerakoan eta abantailez gozatzeko garaian. Erabiltzaileen parte-hartze justu eta orekatua bermatzeko asmoz. Beste aldetik, natura ondarearen arloan eskudunak diren Administrazio Publiko ezberdinek, politika eta plan sektorealak egin eta exekutatzekoan koordinatzea lortu nahi da. Beraz, printzipio honi esker, legearen joburuak bete daitezzen, pertsona publikoez edo pribatuez eta abantailez gozaten duten erabiltzaile orok erantzukidetasunez jardutea lortuko da.

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

Azken printzipioak, klima aldaketak eta kutsadurak natura ondarean sor ditzaketen ondorio eta inpaktuak ekiditeko neurri ezberdinak hartzea dakar: ondorio eta inpraktuak ekiditea, lehuntzea eta inpaktuen aurrean egokitzapena prestatzea; kautela printzipioak aplikatzea, natura ondarean eragin dezaketen esku-hartzeei; babespenaren inguruan herritarrak informatu eta kontzientziatzea, politika publikoak diseinatu eta egikaritzuz; eta politika, ekonomia eta gizarte arloetako erabakiak hartzerako garaian, sektoreko politikan kontserbazio, kudeaketa, erabilera iraunkor, hobekuntza eta zaharberriketarako baldintzak barnebiltzea.

Arestian aztertutako printzipioak errespetatuz, legez babestutako eremu naturalak kudeatzeaz foru organo eskudunak arduratuko dira, nagusiki funtzioak hauek betez (53.3 art.); kudeaketa programaren urteko aurrekontuak eginez, kanpo-esparrutik jasotako errekurtsioak adminstratuz, babestutako eremu naturaletan arauak eta planak betetzen direla bermatuz, ahalmen zehatzailea baliatuz eta arauak eta plan ezberdinek aurreikusten dituzten gainerako funtzioak betez. Baina Urdaibaiko Biosfera Erreserbako kudeaketaz foru organo eskudunen ordez, EAEko Administrazio Orokorreko organoak arduratuko dira, organo hauek zeintzuk diren eta beren funtzioak Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Babeserako eta Antolaketarako legean arautuko direlarik.

Kudeaketaz arduratuko diren organo eskudunak zeintzuk diren, legeak zehazten du bere eskumen banaketa eta antolakuntzari buruzko erregimenean (10-13 art.). Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak dute arlo honetan oinarritzko araudia garatu, errekurtsio naturalei buruzko antolakuntza planak onartzeko eta natura ondareko eremu babestuak deklaratzeko eskumena. Lurralde Historikoetako foru organoek aldiz, Plan Gidariak onartzeko eskumena dute nagusiki, natura ondareari buruzko gainerako araudiek esleitzen dizkieten eskuduntzez gain. Azkenik, toki entitateek beren jarduteko esparruan kontserbaziorako neurri arautzaile edo administratibo gehigarriak ezartzeko aukera edukiko dute.

Nahiz eta organo bakoitzak bere eskuduntza propioak izan, guztien artean koordinatu beharko dituzte beren kontserbazio jardunak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, entitate mugakideekin eta beste Autonomia Erkidegoekin hitzarmenak sinatzeko aukera izango du, natura ondareak duen eremu geografikoaren arabera beharrezko izanez gero. Foru

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

Diputazioen kasuan berriz, beren jarduna natura ondarearen eremu geografikoan aurkitzen diren udalerrietako udaletxeekin koordinatu beharko dute.

Entitate ezberdinen arteko koordinazioak duen garrantzi nabarmenaren aurrean, Natura Ondarearen arloko Koordinazio Batzordea izeneko organoa sortzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari atxikituta. Bere zeregina, sekzio edo batzorde teknikoak egitea eta barne-funtzionamendurako arauak sortzea da.

Azkenik, Ingurumen arloko Aholkularitza Batzorde organoa dago eta Natura Ondarearen esparruan honako zereginak ditu: administrazio ezberdinen arteko koordinazioa sustatzea; babestutako eremuen plangintza eta kudeaketarako instrumentuak informatzea; kontserbaziorako hezkuntza eta ikerketak sustatzea eta zabaltzea; eta azkena, babes eremuengan edozein modutan eragin dezaketen plan edo proiektu guztiez informatzea.

Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen legeak Urdaibaiko Biosfera Erreserba eta plastikoei buruzko lan honekin lotura duten araututako beste puntu esanguratsu bat, Biosfera Erreserbei buruzko xedapenak dira (63art.). Bertan Eusko Jaurlaritzak, EAEko natura ondarearen arloan eskuduna den sailarekin batera, ingurumeneko eremu bat UNESCO-ren MaB programan barnetzea eta Biosfera Erreserba bezala deklaratzeko eskatzeko eskuduntza duela adierazten da. Baina lehenago, Foru Diputazioak informe bat egin beharko du, deklarazioak eragingo dien gizartearen eta instituzioen interesak aurrez entzunak izanez eta Ingurumen arloko Kontseilu Aholkulariaren interesei buruzko informea ere eginez.

Behin natura eremu bat Biosfera Erreserba moduan deklaratutakoan, Biosfera Erreserbako araudi espezifikoa aplikatuko zaio eta araudiaren garapena eta kudeaketa eskuduntzak banatzeaz ere bertako araudi propioa arduratuko da. Hala ere, Natura 2000 Sarean Biosfera Erreserba moduan barneratzeko emango den deklarazioan adierazi diren agindua eta jarraibideak Urdaibaiko Plan Gidarian bildu beharko dira, koherentzia printzipioa errespetatu dadin eta jarraibide edo agindu horiek onartzearen ardura EAEko Natura Ondarearen alorrean eskuduna den Sailari dagokiolarik (63.3 eta 63.4 art.).

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

Amaitzeko, Natura Ondarearen Babeserako legeak, bere xedapenak errespetatzen direla bermateko arautzen duen zehapen-erregimena aztertuko da (93-109 arts.). Arauak errespetatzen direla bermatzeaz, Natura Ondarearen esparruetan ematen diren ekimen eta jarduerak ikuskatzen dituzten funtzionarioak arduratuko dira eta arau-hausteren baten ezaguntza izan bezain laster, salatu egin beharko dute.

Arau urrapenak, administrazioeko erantzukizuna dakar eta zehapena arau-haustearen arabera graduatzen denez eta lege-urrapenak larri, oso larria eta arinak izan daitezkeela kontuan izanda, lehenengo arau haustea zein motatakoa den zehaztu beharko da eta gero inguruabarrak baloratuz (autorearen egoera pertsonala, asmoak, eskuratutako abantailak etab.) zigorraren zenbatekoa zehaztu.

Hala ere, kontuan izan behar da arau-hausteen eta zehapenen indarraldiek epemuga dutela, arau-haustek duen kategoriaren arabera izanez iraupen hori: arau-hauste oso larriak eta hauen zehapenak, bost urteko epean indargabetuko dira; larriak, hiru urteko epean; arinak, urte beteko epean. Zehapenak, lehenengo itzularazteko eta indemnizazio obligazioarekin bateragarriak dira, beharrezko diren kasuan.

Natura Ondarearen Babeserako legeak bere xedapenak betetzen direla bermatzeko arautzen duen zehapen-erregimenaren analisiari amaiera emateko, foru organoek, prozesu zehatzailearen hasieraz, instrukzioaz eta ebazpenaz arduratuko direla eta gainerako materietan ahalmen zigortzailea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoarena dela, argi utziz, Uraibaiko Biosfera Erreserbaren Babes eta Antolakuntzari buruzko 5/1989 legean arautzen den zehapen-prozeduran ere ahalmen zigortzailearen eskuduna bera dela kontuan eduki behar da. (104 art.).

Azkenik, Natura Ondarearen Babeserako legeak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historikoetako Instituzio eta Foru Organoen Harremanari buruzko azaroak 25eko 27/1989 Legeari egiten dion aldaketa aipatu behar da (Azken Xedapenetan Lehenengoa), bere 7.3.c xedapenak honako hau dioelarik aurrantzean “ *Lurralde Historikoetako Instituzio Orokorrei dagozkien natura ondareko eremu babestuen administrazioa, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren administrazioa izan ezik* ” Hori dela eta, argi uzten du leerroalde berri honek,

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

Urdaibaiko Biosfera Erreserbako administrazioa, bertako organoei dagokiela eta nagusiki, Urdaibaiko legedia jarraituko dutela dagozkien funtzioak betetzarako orduan.

Amaitzeko, legearen ikerketaren konklusio bezala, alde batetik Euskadiko Natura Ondarearen Babeserako legeak, Natura Ondare eta Biodibertsitatearen lege estatalarekiko duen antzekotasuna aipatu behar da. Beste aldetik, lege honek une oro Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Babeserako legea kontuan izaten duela azpimarratu behar da. Izan ere, hainbat esparru Urdaibaiko legediak arautuak izan daitezten erreserbatzen ditu. Baina hala ere, jakitekoa da, ingurumenaren kontserbazioa, iraunkortasuna garatzeko neurri eta teknikak eta natura ondarea eta bere zati diren Biosfera Erreserben alorrak arautzen dituela legea.

B. Euskadiko ingurumen-administrazioari buruzko legea

Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko 10/2021 Legeak, pertsona fisikoei eta juridiko pribatuei edo publikoei ingurumenaz gozatzeko eskubidea aitortzen die⁵⁰. Ingurumenaz gozatu ahal izateko, lehenik babestu egin behar da eta legeak hori lortzeko asmoz, kontsumitzaile publiko eta pribatuen artean erantzunkidetasuna sustatzen du eta errekurso naturalak modu efizientean kudeatzeko sistema bat proposatzen du. Motzean esanda, bizimodu eta ongizate orokorraren kalitatea hobetzeko asmoa du legeak, produkzio eta kontsumo modelook ekonomia zirkularrerantz zuzenduz.

Legearen helburuak nagusiki, alde batetik, ingurumena hondatzea ekiditera eta zaharbertzera zuzenduko dira (1 art.). Bestetik, herritarrak ingurumenak sortutako presio eta arriskuetatik babestera. Helburu horiek lortzeko xedeaz, legeak pertsona fisiko eta juridikoei eskubide eta betebeharrak aitortzen dizkie (5 eta 6 art.).

Legeak pertsona fisiko zein juridikoei, ingurumenaz berdintasunez gozatzeko eskubidea, ingurumena babesteko politiken diseinu fasean eta erabakietan parte hartzeko eskubidea, ingurumen eta errekurso naturalen egoerari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea, lan honetan aurrerago aztertuko den akzio publikoa egikaritzeko eskubidea eta Administrazio

⁵⁰Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legea - Euskadiko Agintaritza Aldizkaria 2021eko abenduaren 31a (zk.262.).

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

Publikoak efizientzia, gardentasuna eta ekonomiako printzipioak jarraituz jardungo dutenaren bermea izateko eskubideak aitortzen dizkie.

Obligazioei dagokienez, honako betebeharrak ditu pertsona orok: ingurumena babestea, kontserbatzea eta hobetzea; hondakinen sorrera ekiditea edo murriztea; kaltetutako ingurumena berritzea edo konpontzea; azkena, legearen aplikazio eremuetan ekintzak burutzerakoan behar den administrazioaren baimenaz jardutea.

Beraz, akzio publikoa egikaritzea pertsona fisiko edo juridiko orok duen eskubidea dela adierazi berri denez arestian, sakonago aztertzeari ekingo diogu jarraian (5.d art eta 17 art.). Akzio publikoa, ingurumen arloko araudiak ezarritako obligazioak betetzen ez diren kasuetan, Euskal Administrazio Publikoari bete daitezela galdatzeko balio duen izaera publikoko berme bat da. Hau da, edozein pertsonak eska dezake legea bete dadin neurriak hartzea, ingurumenean kalteak sortu diren kasuan erantzukizuna esleitzea eta arau-hausteetan ekintzak salatzea. Horrez gain, Administrazio Publikoak arau-haustea salatzen duen pertsonaren eskubideak eta bere babesa sustatu eta bermatu egin beharko dute. Behin salaketa egin ondoren, delitu kasuetan, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen arloan eskduna den Administrazioak organo judizialekin koordinatuz jardun beharko du, hau da, Ingurumen arloko Fiskaltzarekin.

Ingurumen arloko eskubide eta obligaioak bermatzeko Administrazio Publikoen jardunak antolatzeako asmoz, legeak antolakuntzazko arau xedapenak aurreikusten ditu, ingurumen arloko politiken eskumen eta koordinazioa arautuz bertan (7,8,10,11 arts.).

Ingurumen arloko eskuduntzak Euskal Autonomia Erkidegoan hiru mailatan banatzen dira, EAEko Instituzio Orokorrenak, Lurralde Historikoetako Foru organoenak eta azkena, EAEko toki entitateenak. EAEko Instituzio Orokorrek dituzten eskumenak Autonomian maila gorenekoak dira: oinarrizko legeak garatzea eta egikaritzea; autonomia mailako plan eta estrategiak egin eta onartzea; Europar Batasuneko erreglamenduen aplikazio, garapena eta egikaritzarako beharrezko neurriak hartzea; beren eskuduntzak era ordenatuan, inspektzioaz eta disziplinaz egikaritzea eta ingurumen arloko arau gehigarriak diktatzeko duten ahalmena.

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

Lurralde Historikoetako Foru organoek, honako eskumenak edukiko dituzte: lurralde historikoetako ingurumen arloko plan eta estrategiak egitea eta onartzea; udaletxean legeak babestutako eremuetan beteko diren ekintzen inguruko lizentzia aurkeztea; lurralde historikoen artean koordinatuta jardutea etxeetako hondakinen antolakuntza bermatzeko asmoz; ingurumenaren egoera ebaluatzen duten informe eta deklarazioak aurkeztea plan, programa edo proiektuak baimendu daitezen horiei esker; azkena, etxeetako hondakinak kudeatzeko azpiegiturak sustatzea.

Azkenik, EAeko toki entitateen eskumena urriagoa da. Orokorrean, ingurumen arloko ekintzak era ordenatuan betetzen direla, inspektzioa eta arreta bermatzea da bere egitekoa. Baina, ingurumen arloko beste legeek eskuduntza gehiago esleitu diezaiokete.

Maila lurraldetar ezberdin horietako organu eta Administrazio Publikoek, beren ingurumen arloko eskumenak eraginkortasun, lankidetzaz, koordinazio eta integrazte printzipioak errespetatuz egikaritu beharko dituzte, helburuak bete daitezen elkarrei beren informazioa emanaz eta ekonomia, gizarte eta ingurumen arloko politiken kudeaketa bateratua lortzeko, administrazioek lankidetzaz mekanismoak kudeatu eta diseinatu.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen arloko politikak, ingurumenaren egoera zein den zehazten duen diagnostikoekin batera Ingurumen Markoko Programaren barnean jasoko dira. Bertan, Euskadiko ingurumeneko politikez gain, naturaren kalitatea hobetzera zuzendutako estrategia eta konpromezuak eta lehentasunezko izaera duten helburuak lortzeko ekintzak ere zehaztuko dira, beste hainbat xehetasunez gain (programaren indarraldiko epea, ikuskeraren prozedurak etab.).

Azkenik, Euskal Autonomi Erkidegoko ingurumen arloko organoa arduratuko da programa idazteaz eta Gobernu Batzordea onartzeaz, Ingurumeneko Aholkularitza Batzordearen informea jaso ondoren. Izan ere, aipatutako azken organo honen zeregina, administrazio publikoak beren jardunean koordinatu eta aholkuak ematea da, nahiz eta bere aholku eta informeez ez duten izaera loteslerik.

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

Beraz, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako araudian aplikagarriak edo berarekin zerikusia duten xedapenak aztertu ostean, lege honek plastikoei buruz ez duela ia ezer arautzen nabaria da, hondakinetan ipintzen baitu arreta osoa. Beraz, alderdi horretatik ez da horren garrantzitsua bertan xedatzen dena. Hala ere, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Babeserako legearen moduan, akzio publikoa aurreikusten du, zeina hiritarren parte hartzea sustatzeko instrumentu bikaina den. Horregatik, lege honetatik ateratako ekarpen nagusia bere zehapen erregimena eta akzio publikoa izango dira.

VI. URDAIBAI BIOSFERA ERRESERBARI BURUZKO ARAUDIA

Biosfera Erreserbak eta beren babespena arautzen dituzten Europar mailako, Estatu mailako eta Autonomia Erkidego mailako araudia landu ostean. Kontuan eduki beharrekoa da, Urdaibaiko Biosfera Erreserba, legedi propioa, legediaren garapenerako araudia eta eskumen eta kudeaketa arau propioak dituen Espainia mailako Biosfera Erreserba bakarra dela. Horri esker, Urdaibaiko eremua ongi arautua eta babestua dagoenez hainbat ikuspuntutatik, konklusio nagusietara iritsi baina lehenagoko lanaren azken atala Urdaibaiko araudia aztertzeari eskainiko zaio.

Urdaibaiko Biosfera Erreserba babestu eta arautzen duen legea, uztailaren 6ko 5/1989 Legea da⁵¹. Lege honek, Biosfera Erreserba osatzen duten sektore ezberdinak lotu eta arautu egiten ditu, ingurumenean sortzen diren arriskuak ezabatuz Biosfera Erreserba babesteko asmoz. Izan ere, aztergai den Urdaibaiko Biosfera Erreserban gauzatzen diren giza jarduera ezberdinen ondorioz, bertako errekurtsu naturalak eta natura ondarea babesteko beharra nabarmendu da. Horregatik, lege honen xedea, Urdaibaiko Biosfera Erreserba babestea eta bertako flora, fauna, paisaia, atmosfera eta uraren kalitatea sustatuko eta berreskuratuko dituen erregimen juridikoa ezartzea da, interes sozioekonomikoak, kulturalak, hezkuntzarakoak, ingurumenekoak eta aisialdikoak babestuz (1art).

Eusko Jaurlaritzak, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Kudeaketara eta Erabilerara zuzendutako Plan Gidaria idatziko du arestian zerrendatutako helburuak betetzeko asmoz (15art.). Planaren indarraldia mugagabea da, baina indarrean sartu zenetik hamar urte bete

⁵¹ Urdaibaiko Biosfera Erreserba babestu eta arautzen duen uztailaren 6ko 5/1989 Legea Euskadiko Agintaritzaren Aldizkaria 1989ko uztailaren 29a (zk. 145.)

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

baino lehenago ikuskatu beharko da eta Hirigintza Plan ezberdinen gain lehentasunezko izaera edukiko du. Plan Gidariak honako edukiak bildu beharko ditu: Biosfera Erreserbaren erabilera eta antolaketarako agindu orokorrak; balore naturalen kontserbazio, berreskuratze, babespen eta zaintzarako eta legearen helburuak betetzen direla bermatzeko kudeaketa eta jardunerako arauak; azkenik, Biosfera Erreserba zonifikaziorako erabilera eta helburu ezberdinetako eremuak ezberdindu eta eremu bakoitzari babes eta erregimen propioa esleituko dizkieten arauak bilduko dira.

Jarraian, Urdaibaiko Biosfera Erreserba arautzen duen legearen azterketan geldiene bat egingo da, lehenik 6/1989 Legeak berak aipatzen duen Plan Gidaria aztertzeke eta jarrian, Plan Gidariaren helburuak betetzera zuzentzen den PADAS izeneko agiria ikertzeke.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plan Gidari berria, irailaren 27ko 139/2016 Dekretuan onartu zen, 2009an Urdaibaiko Patronatuko plenoan behar berriei aurre egin ahal izateko plan berri bat idazteko beharra agertu ondoren⁵². Hala ere, 139/2016 Dekretua onartzerako garaian arazoak egon ziren, hainbatetan judizialki inpugnatu baitzen gizartearen erantzun ezkorra ikusi ondoren⁵³.

Baskegur Euskadiko egur elkarteak izan zen dekretua inpugnatzen azkena, eta egoera honen aurrean, 2018ko irailaren 21ean Euskadiko Justizia Auzitegi Gorenak, 139/2016 Dekretuaren inpugnazioa desestimatu eta Plana estimatzea erabaki zuen, inpugnazioaren oinarri ziren arrazoiak baliozkoak ez izateagatik⁵⁴: Planaren eraketa fasean Euskadiko Aholkularitza Batzordeak informarik egin ez izanak ez duela axola, Plan hau ez baita 5/1989 Legearen garapenerako eta exekuziorako beharrezko araua eta ondorioz ez da beharrezkoa informe hori egitea; memoria ekonomikoan hainbat kostu ez zehaztu izana ez dela inpugnazioarako arrazoiak, izan ere, Planaren arrazoiketa memoria horren inguruan hainbat zehaztapen egiten direnez nahikoa dela; Planaren ingurumen ebaluazioa prozedura burutzea jada ez dela beharrezkoa, Plan eta Programen ebaluazioei buruzko 211/2012 Dekretuan emandako aldaketei esker; Euskadiko Agintaritzaren Aldizkarian planaren planoak publikatu ez izanak

⁵² 139/2016 Dekretua Plan Gidaria, Euskadiko Agintaritzaren Aldizkaria 2016ko azaroaren 28a (zk.226.)

⁵³EUROPAKO IKERKETA TALDEA. *IeZ, Ingurugiroa eta Zuzenbidea Aldizkaria 2019 (dok. 79-82or) BI913/2019.*

⁵⁴ 2018ko irailaren 21 eko EAEko JANaren administrazio-auziko sala, 2. sekzioaren 388/2018 epaia, Plan Gidariaren inpugnazioari buruzkoa (errekurtso zk.65/2017).

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

ez duela segurtasun juridikoa kaltetzen; Planean adierazi diren lur eta itsas zortasunak jabego publikoaren babespean egongo direla; azkenik, behar eta proportzionaltasun printzipioak ez direla kaltetzen plantazioetarako lurak murrizteagatik, izan ere, flora eta fauna sustatzeko eta lurrazalak aprobetxatzeko asmoz burutzen da murrizketa hori.

Hainbat inpugnazioren ostean, 2018an behin-betiko berretsi da 139/2016 Dekretua, Plan Gidaria berrikusteko agindua betearazterako garaian agertu ziren behar berriak erantzuteko asmoz sortua izan zena.

Biosfera Erreserbaren kontzeptua ikertzean, beren hiru helburu nagusiak (1.3.1 art); kontserbazioa, garapen jasangarria eta laguntza logistikoa direla kontuan izan behar da eta Plan Gidariak hiru horiez gain, egiturazko helburuak ere zehaztuko ditu. Helburu horiek lortzeko asmoz, beste helburu orokor batzuk ere aipatzen dira Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Plan Gidarian eta horiek betetzeko legean tresna ezberdinak aurreikusten dira, geroago aztertuko direnak.

Egiturazko helburuekin hasiz, Urdaibaiko Biosfera Erreserba eremuko administrazio, erakunde eta elkarten lankidetzan oinarritutako kudeaketa lortu nahi da, beste Biosfera Erreserba batzuekin lankidetzan, koordinazioa eta jakintza-trukea bultzatuz. Hori lortzeko, Urdaibaiko Biosfera Erreserba entsegurako leku gisa erabiliko da, egokitzapen eta arintze neurriak martxan jartzeko eta ekosistemek gizakiari eskaintzen dizkioten zerbitzuak mantentzeko neurriak aplikatzeko. Guzti honez gain, lurralde eta hirigintza-antolamenduko prozesuetan ingurumenaren babesa lurzoru-kontsumoaren gainetik ezartzea bermatu nahi da, erabakiak hartzekoan ingurumen, ekonomia, gizarte, kultura eta hizkuntza alorrak jasoz, etorkizuneko aukerak urratu gabe.

Kontserbazio helburuak, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuan dauden habitat eta espezie naturalak, natura dibertsitatea, lur gaineko eta lurpeko ur kontinentalak, lur zorua eta atmosfera babestera, lehengoratzera, modu arautuan eta jasangarrian erabiltzera eta bermatzera zuzentzen dira.

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

Laguntza logistikoko helburuek, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren helburuekin lotutako jakintza-esparru guztien ikerketa bultzatzea eta sustatzea eta informazio hori, biztanleriaren eta kudeatzaileen esperientziarekin batera, erabakiak hartzeko kudeaketa tresna bihurtzeko aburua dute.

Garapen jasangarriko helburuak azkenik, Nazio Batuek onartutako Agenda 2030 dokumentuan jasotako Garapen Iraunkorreko Helburuak lortzen laguntzeko xedea dute, honako hauek dira helburu horietako batzuk: mundu osoko pobrezari amaiera ematea; gosearekin amaitzea eta elikaduraren kalitatea lortzea; adin ezberdinetako pertsonen bizitza osasuntsua eta ongizatea bermatzea; ura eta saneamendua guztientzako eskuragarri jartzea; energia merke, ziur, jasangarria eta modernoa bermatzea gizadi osoarentzat; guztientzako enplegua, enplegu produktiboa eta lan duina bermatzea; gizarte ezberdinen arteko desberdintasunak murriztea; kontsumo eta ekoizpen eredu jasangarriak bermatzea; klima-aldaketari eta hark eragindako ondorioei aurre egiteko neurriak hartzea; ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak garapen jasangarrirako modu jasangarrian kontserbatzea eta erabiltzea; lurreko ekosistemen erabilera jasangarria babestea, berrezartzea eta bultzatzea; azkena, garapen jasangarria lortzeko baliabideak indartzea.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Plan Gidaria, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lur urbaniza ezinez osatua eta horietan oinarrituz garatua dago, aipatutako eremuetan jarduera ezberdinak burutu daitezkeelarik (4.1.1art.): lur edo eraikin batean erabilera berriak ezartzea, horiek eraikuntzako esku-hartzea behar izan ala ez; lur edo eraikuntza baten erabilera aldatzea; edozein eraikuntzatan eraikuntzako esku-hartzea gauzatzea, bere erabilera aldatu gabe. Plan honetan jaso gabe geratzen diren erabilera eta jarduerak Patronatuak Sailburuaren aginduz alde aurretik emandako txosten bitartez tipifikatu daitezke, gainerako erabilerengan edukiko duten ondorioak kontuan izanez.

Planaren helburuak betetzeko beste ardatz nagusia, kaltetutako ingurumena lehengoratzea da. Oinarri hau, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako natura ondareari ingurumen alorrean balio handiagoa ematen laguntzeko jarduerak burutzean datza, lehengoratzeko esku-hartzeak gauzatu, betiere kontserbaziorako neurriak errespetatu burutu beharko direlarik jarduerak.

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

Lehengoratzeko jarduerak lortu nahi diren ingurumeneko egoerak hiru dira eta ordena hierarkikoa dute beren lehentasunaren arabera: lehena, ingurunea jatorrizko natura-egoerara lehengoratzeko da eta jatorrizko egoera zein den zehazteko, jarduera eremuan gobernatu duten prozesu abiotikoak eta biotikoak hartuko dira kontuan; bigarrena, ingurunea naturak balio handiagoa izan duen beste egoera batzuetara lehengoratzeko da, esku-hartzearen aurretik zegoena baino balio handiagoko ingurumen egoera batera bideratuz natura ondarea.

Helburu horiek bete eta arestian azaldutako bi ardatz nagusiak bermatzeko asmoz, planean zehar, baimen eta emakida ezberdinak aurreikusten dira, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren natura esparru ezberdinetan jarduerak burutu ahal izateko (4.1.2, 4.1.3 eta 4.1.4 art.). Uraren arloan, ur jabari publikoaren eremuan, itsaso lehorreko jabari publikoa babesteko zortasun eremuan eta urpeko eremuetan uraren alorreko araudia bete beharko da. Hondakin uraren tratamendurako eta ebakuaziorako berriz, sarearen kudeatzailearen baimena beharko da eta isuriak saneamendurako sare orokorraz ebakutzen ez diren kasuetan Uraren Euskal Agentziak emandako isurketa-baimena beharko da edo hark baimen horren gainean beharrezkoa den ala ez hartutako erabakia. Mehatxupeko flora eta fauna espezieei eragiten dieten jarduerak burutu ahal izateko berriz, Bizkaiko Foru Aldundiak onartutako kudeaketa planetan eskatutako baimen eta txostenak eduki behar dira. Kosta eremuan azkenik, itsas-lehorreko jabari publikoaren erabilera kostaldeei buruzko Legearen III. tituluan zehaztutakoarekin bat etorritik arautuko da. Babes-zortasuneko zonako erabilerek berriz, autonomia-erkidegoko organo eskudunaren baimena eduki behar dute. Igarobide-zortasunak eta itsasora iristeko bideak errespetatzen direla bermatzeko, Kosteien buruzko Legea errespetatu beharko da eta aipatutako legea indarrean sartu aurretik zeuden eta jabari publikoan edo zortasun-gunean dauden obren eta instalazioen kasuan, Kosteien buruzko Legearen laugarren xedapen iragankorrean ezarritakoa bete beharko da.

139/2016 Dekretuaren helburu nagusia den garapen jasangarria lortzeko berriz, ingurumenaren erabilera kudeatzerako orduan, Urdaibaiko kontserbazioa eta ingurumenaren lehengoratzeko kontuan eduki beharreko ardatzak dira (IV Tituluko III. Kapitulua). Kontserbazioa, ingurumeneko gaur egungo ezaugarri eta egoera mantentzean datza, ahal izan heinen gizakiaren esku-hartzerik gabe eta behar izanez gero, zientzia edo kultura izaerako esku-hartzeak burutuz. Kontserbazioa, bi motatakoa izan liteke, prebentziozko kontserbazioa

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

bata, ekosistemen aldeko kontserbazio egoera mantentzeaz arduratzen dena, erabilera jakin batzuk galarazi edo mugatuz. Bestea berriz, kontserbazio aktiboa, lur urbanizaezinetako eremuetan baimendutako erabilerak garapen jasangarriko praktika baten barnean garatzean datza, horiek ingurumenarentzat onurak sortuko dituztelarik.

Baimen horiez gain, badaude lehendik dauden eraikuntza, azpiegitura eta lurzati batzuk non beraien erabilera baimendua edo toleratua dagoen, betiere, aldaketarik eragiten ez duten esku-hartzeak badira (IV Tituluko VI. Kapituluak). Horrez gain, kontserbaziorako edo jardueraren eraginkortasuna eta kalitatea mantentzeko beharrezkoak direnean onartuko dira, hau da, zahartzea saihestea konponketa esku hartzeaz.

Plan Gidariarekin amaitzeko, bere erabileraren garapena, dekretuan arautzen diren bi tresnen bidez egin beharko da. Lehena, Urteko Kudeaketa Plan Integratua da eta Planaren helburuak zuzenean lortzea ahalbidetzen duen instrumentua da, urtero onartuko du bat Urdaibaiko Patronatuaren Osoko Batzarrak eta bertan, Biosfera Erreserbari buruzko informazioa jasoko da. Bigarren tresna berriz, Plan Bereziak dira eta Plan Gidariko helburuak lortzera zuzenduak daude. Hori, Plana gauzatzeko aurreikusitako zehaztapenak garatuz eta hirigintza eta ingurumen arloko araubidez lortuko da. Plan bereziak bost arlo ezberdinen inguruko araudia xehatzeko egingo dira: aisia eta jolas-erabilerei buruzkoak; oin berriko azpiegiturak ezartzeko edo handitzekoak; zuzkidura eta ekipamendu eraikuntzak ezartzeko zehaztapenak; aparteko kasuetan hotel erabilera emango zaien eraikinei buruzkoak; amaitzeko, landa guneeetako eremuak garatzera zuzendutako erregulazioa zehazteko.

139/2016 Dekretuan arautzen diren garapen jasangarria lortzera bideratutako helburuak, berrikusi eta zehaztu egiten dira jarraian aztertuko den Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Jarduera Sozioekonomikoen Egokitzapen eta Garapenerako Programa (JESEGE edo aurrerantzean PADAS deritzona) onartzen duen irailaren 29ko 258/1998 Dekretua berrikustean⁵⁵, zeina 5/1989 Legeak agindutako moduan onartu beharko den eta ondoren, plan sektorialeaz garatu (I. Atalburua)⁵⁶. PADAS egitaraua, ingurumen eta ekonomia aztertuz

⁵⁵ 258/1998 Dekretua (PADAS), I. Atalburua (4-8 orr.) Euskadiko Agintaritzaren Aldizkaria 1998ko urriaren 21a (zk.200.).

⁵⁶ Urdaibaiko Biosfera Erreserba babestu eta arautzen duen 5/1989 Legea (16. artikulua) Euskadiko Agintaritzaren Aldizkaria 1989ko uztailaren 29a (zk. 145.)

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

idatziko den agiria da eta bere azterketa eremua, lurzoru urbanizaezinetan eragiten duten ekintza sozioekonomikoez osatzen da (II. Atalburua). Baliabide naturalak, beren probetxugarritasuna, ekonomia eta giza ingurunea aztertuz. Hala nola, Urdaibaiko Biosfera Erreserban datozen urteetan agertuko diren erronkak betetzeko burutuko diren ekintza multzo sistematikoa zehazten da agiri honetan, diagnostiko eta lan sistematiko sozioekonomikoa burutu ondoren. Gainera, diagnostikoari esker, biztanleen, sektore ekonomikoen eta baliabideen beharrianak erantzungo dituen hainbat estrategiak ere zehaztu dira eta baita horiek xehetzen dituzten hainbat jardun-lerro ere.

Hamar dira PADAS-ek zehaztu dituen estrategiak (III. Atalburua): ingurumeneko sistemen giza habitataren, paisaiaren eta bioaniztasunaren kalitatea hobetzea; baliabideen kontsumoa ahalik eta gehien murriztea, teknologia garbiak erabiltzea eta hondakinak birziklatu eta berreskuratzea; gazte eta emakumeen baserrietako zereginak sustatzea, prestakuntza, garapen eta merkaturatze ekintzak burutuz; baxurako-arrantza sustatzea; ekonomi eta ingurumen alorretik begiratuta industria eredu jasangarria sustatzea; urdaibaiko lurraldean ekonomia jarduera berriak ezartzea, horiek egoerara egokituz; turismo eredu natural eta kalitatezkoa sustatzea; komunikabide eta azpiegituren hierarkizazioa eta intermodalitatea lortzea, garraio publikoak sustatuz; azkena, erakunde eta agente publiko eta pribatuen arteko koordinazioa hobetzea. Estrategia horiei eta hauek barne-biltzen dituzten jardueri esker, datozen urteetan Urdaibaiko Biosfera Erreserban 139/2016 Dekretuaz onartutako Plan Gidariko helburuak lortzea espero zen araudi hauek onartzerako garaian.

PADASa onartu eta hamar urte igaro zirenean, bertan arautzen diren estrategia eta jardunek zein helburu bete dituzten edo guztiz egikarituak izan diren ikusteko ebaluaketa bat burutu zen⁵⁷. Honek, garapen iraunkorrerako estrategia burutzerako orduan hausnarketa oinarri bezela balio dezake, izan ere, PADAS-ean zehaztutako jardun lerroetan jarasangarritasuneran garapen handiena sortu duten estrategiak zeintzuk izan diren ikusteko aukera sortzen baitu. Beraz, aipatutako berrikuspenaren ondoren, burutu diren jarduerak honako hauek direla ikusi zen: ebaluaketa metodologia sortzea; agenteei egindako galdeketetan, informazio bilketak egitea; amaierako dokumentua egikaritzea; PADAS-a ebaluatzeko lan jardunak burutzea Ingurumeneko Lurralde Antolaketa Sileko talde tekniko eta aholkulariak; burutu den azken

⁵⁷ Urdaibaiko web-gune ofizialeko PADAS-ari buruzko artikulua: <https://www.urdaibai.eus/es/padas/> (Azken kontsulta 2022/05/01)

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

jarduera, Ingurumeneko Lurralde Antolaketa Saileko talde teknikoak burututako dokumentu orokor, proiektu eta jardueren berrikuspena da.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren araudiarekin jarraitzeko asmoz, 5/1989 legera itzuli eta Urdaibaiko eremuko antolaketa eta eskumenak aztertuko dira, hainbat administrazio publikori eskumen eta funtzio ezberdinak esleitzen diezkielarik legeak (12-27art). Lehen organoa, Urdaibaiko patronatua da, zeina Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari atxikia dagoen eta EAeko lurralde eremuan zer esan handia duten entitate eta organoak ordezkatzeko dituzten hemezortzi kideez osatzen den, horien artean Jaurlaritzak bat presidente izendatuz. Hau da organo eskudun nagusia, bere zereginak Erreserbako natura ondarearen erabilera egokia bermatzetik eta zeregin informatzaileak burutzetik hasiz, araudia betearazpena bermatu edo arau proposamenak egiterainokoa baita. Bigarren organoa, patronatuaren barnean sortzen den Batzorde Iraunkorra da, bertako presidentea patronatuko pertsona berdina da eta 6 ordezkari osatzen da organoa. Azken organoa, Zuzendari Kontserbatzailearena da eta Urdaibaiko Biosfera Erreserba administratzeko zeregina du honek. Organo hauek eskuduntzen eremuan jardungo duten gainerako administrazio publikoak, beren jarduerak kooperazio, lankidetzeta eta informazio obligazioak betetz egikaritu beharko dituzte eta Urdaibaiko eremuan kokatuta dauden udaletxeen kasuan, Plan Gidarian aurreikusitako erabilera publiko eta zerbitzua prestatzerako garaian emakida eta baimenak eskuratzekoan lehentasun eskubideak dituzte (I. Xedapen Gehigarria).

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren araudi propioarekin amaitzeko, bere zehapen erregimena eta akzio publikoa aztertuko dira lanean. Urdaibaiko Biosfera Erreserbako legeak babespen berezia ematen dien eremuak eta Plan Gidarian adierazitako eremuak interes publikokoak direnez, erabilera publikokoak dira (24 art.). Horregatik, Urdaibaiko legean aurreikusten diren arauak betearaztea galdatzeko akzioa publikoa izango da eta administrazio organo eta epaitegietan egikaritu beharko da (30.art).

Bestalde, legearen zehapen erregimenak aurreikusten dituen arau hausteak hiru motatakoak dira (26-29 art). Arau-hauste oso larriak, babestutako eremuetan edo Plan Gidarian baimendutako erabilerei buruzko arau-hausteak dira, kalte konpongaitzak sortzen dituztenean. Aldiz, kaltea konpongaria bada edo kalterik sortu ez bada baina erabilera debekatu bat

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

burutu bada eremu babestuetan, arau-hausteak larri izaera du. Azkenak arau-hauste arinak dira, eta larri edo oso larri izaera lortzen ez duten jarduerak barnebiltzen dira kategorian honetan. Arau hausteak, Ingurumen Saileko ordezkari eta Gobernuak ezarritako isunaz zigortuko dira eta urrapenak berriz, indarraldia edukiko dute, araua hautsi den egunetik kontatzen hasiz. Arinek 6 hilabetekoa, larriek 5 urtetakoa eta oso larriek 10 urtetako epekoa, hala ere, eraikuntza jardueren inguruko arau hausteek ez dute indarraldi eperik edukiko. Azkenik, prozedura judizialen bat edo zehapen prozeduraren bat hasiz gero, indarraldi epea eten egingo da prozesua kondenarik gabe amaitu arte edo 6 hilabete igaro artea.

VII. LANAREN AZKEN ONDORIOAK

A. Azken gogoeta

UNESCO-ren MaB programari esker, Urdaibaiko Biosfera Erreserba gaur egun Naturako Ondarea kontsideratzen da eta horri esker, araudiak garrantzi handia ematen dio eta biziki babesten du. Hala ere, legedia anitza da eta beren edukia oso zabala, nahiz eta azken finean guztien ingurumena kontserbatzea eta eremu naturalak iraunkortasunera sustatzea izan guztien jomuga.

Lan honetan zehar, aipatutako helburuak lortzeko jarduera, ekimen, estrategia eta neurri ezberdinak eskaintzen dituela araudiak ikusteko aukera izan dut. Alde batetik, Europako Bauhaus Berriaren ekimena dugu, zeinak bizimodu ekologiko eta iraunkor bat sustatzeko xedea duen, baina berrikuntzak sortuz estetikan, inklusioan oinarrituz eta zirkulartasun eta hondakinen kudeaketan oinarrituz. Beraz, oso ekimen modernoa dela esan genezake nola bait. Beste alde batetik, tradizionalagoak diren arau eta xedapenak aurki daitezke. Zeinak iraunkortasuna eta ingurumenaren kontserbazioa ohikoagoak diren neurri, erregimen zehatzaile, estrategia eta jardunbideez lortzeko asmoa adierazten duten. Natura Ondarearen estatuko eta lege autonomiakoa eta Ekonomia Zirkularraren Hondakinen eta Lur Kutsatuen legeak adibidez.

Beraz, nire ekarpena Urdaibaiko Biosfera Erreserbako ingurumenaren egoera hobetzeko xedeaz, Europar Batasuneko, Espainiako eta EAEko araudi ezberdinak aztertu ostean,

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

Urdaibaiko Biosfera Erreserbako legedi propioan eta PADAS-ean eta Plan Gidarian aldaketak proposatzea eta ekarpenak egitea da.

B. Nire ekarpenak

Jatorri ezberdinetako araudi eta dokumentazioa ikertu ostean Urdaibaiko legedian, PADAS-ean eta Plan Gidarian biltzeko proposatzen ditudan ekarpenekin hasiz, Bauhausaren Filosofian oinarrituko naiz. XXI. mendean ingurumena kontserbatu eta garapen iraunkorra lortzeko erabiltzen diren teknikak oso tradizionalak dira nagusiki. Horregatik, Urdaibaiko araudiari Europako Bauhaus Berriaren ekimenaren kutsua ematea ideia bikaina iruditzen zait. Modu honetara, ingurumena babesterakoan, teknika tradizionalak kontuan hartzen ez dituzten hainbat aspekturi garrantzi emango litzaieke, arkitektura iraunkorraren sustapenari adibidez. Honek hiritarren arreta eta motibazioa eskuratu eta ingurumenaren kontserbazioan gizartean sensibilizazioa eta parte-hartzea sustatzen lagun dezake. PADAS-eko zapigarren, zortzigarren edo hemezortzigarren jardunbideetan barneratuko nuke Bauhaus Berriaren filosofiaren aplikazioari buruzko ekarpena. Zapigarren jardun lerroa, bizi kalitatea hobetzera zuzendua baitago, Bauhausaren filosofiaren moduan; zortzagarrena berriz, Urdaibaiko habitaten hobekuntzan eta tokiko biztanleriaren etxebizitzaren eskuragarritasunaren sustapenean oinarritzen baita eta azkenik; hemezortzigarren jardun bidearen xedea, jarduera iruankorrekin lotutako enplegu eta enpresen kompetentzia sustatzea da.

Beraz, estrategia horiei esker, Urdaibaiko esparruan lan egingo duten arkitektoek (beste hainbat sektoretako langileen artean) iraunkortasunarekiko harreman handiagoa duten eraikuntzak sortzeko aukera edukiko lukete Bauhausaren filosofian oinarrituz eta Urdaibaiko biztanleriari etxebizitza modelo iraunkorrak eskuratzea errazagoa egingo litzaieke, ondoio modura gizartean bizi kalitatea eta ongizatea hobetuko litzatekeelarik.

Bigarrenik, oraindik onartu gabe dagoen Arkitekturaren Kalitateari Buruzko Lege Proiektuak, Espainiar araudian sektore publikoko kontratazioan aldaketak sartuz eragingo duela ikusteko aukera eduki dut lan honetan. Aldaketa horien artean esanguratsuenak eta Urdaibaiko legedian zer esana izango dutenak, alde batetik, obra kontratuekiko edo hornikuntza kontreatuekiko osagarriak diren zerbitzu-kontratuen iraupenaren luzapena da. Bost urtetatik

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

gora luzatu ahal izateko aukera ematen baitu Lege Proiektuak kontratu nagusian adierazten den epea gainditzen ez den bitartean. Beste aldaketa esanguratsua, zerbitzu kontratuei buruzko eduki eta mugei buruzkoa da. Obren proiektua eta zuzendaritza batera kontratatzea ahalbidetzen baitu Lege Proiektuak, era indibidualean kontratatzeak kontratuaren objektu diren prestazioen kalitatean modu ezkorrean eragiten duen kasuetan. Beraz, Arkitektura Kalitateari buruzko Lege Proiektutik, sektore publikoko kontratazio arloan ematen diren bi aldaketa hauek Urdaibaiko obra eta zerbitzuei ere aplikatuko zaizkie Lege Proiektua onartu eta indarrean sartzan denen unetik aurrera. Honi esker, arestian aipatu dudana Bauhaus Berriaren filosofia landuko da eta Urdaibaiko eremuan arkitektura eta obra lanak burutuko dituzten langileen kontratazioa erraztuko litzateke. Zerbitzu eta obra kontratuen aldi bereko kontratazioak dakartzan errazatasuei esker, enpleguen sustapenean ondorio zuzenak edukiko ditu, emaitza positiboak ekarriz.

Indarrean sartu berri den Ekonomia Zirkularraren Hondakinen eta Lur Kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legeari dagokionean. Erabilera bakarreko plastikoak ingurumenean duten eragina eta beren kontsumoa murrizteko asmoz arautzen dituen neurri eta trataerak bilduko nituzke Urdaibaiko Biosfera Erreserbako PADAS-eko seigarren jardun lerroan, hondakinen kudeaketari buruzkoa baita. Plastikoen birziklapena sustatzeko xedea duen estrategia bat gehituko nieke seigarren jardun-lerroan jada aipatzen diren estrategiaiei eta epe luzera begirantz helburu eta zeregin batzuk jarri jomuga ezberdinak lortzen joateko asmoz. Aipatu den legeak ezartzen dituen helburuak bezala adibidez, 2023an, merkaturatu diren botilen %70a birziklatzea lortzea. 2025an, merkaturatu diren botilen %77a birziklatzea. 2027an berriz, merkaturatu diren botilen %85a birziklapenera heltzeko xedea etab. Hala ere, PADASeko bigarren jardun lerroaren barruan ere barneratu ahal izango lirateke hondakinen birziklapen neurri hauek, Urdaibaiko errekurso naturalen kontserbazioan eta hauek kaltetzen dituzten jardueren kontrolean oinarritzen baita, nire ekarpenaren objektu diren neurrien moduan.

Espainiar mailan aztertu dudana azken legea, 2007ko azaroaren 13ko Natura Ondare eta Biodibertsitatea babesteko 42/2007 Legea da. Bertan, Natura Ondarearen zati diren animalia eta landareen espezieak babesteko neurri ezberdinak arautzen dira. Neurri horietako batzuk Urdaibaiko legedira ekartzea eta Plan Gidariaz garatzea ideia bikaina iruditzen zait, basoko

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

jardunak antolatzeaz arduratzen baitira eta bere helburu ezberdinen artean, dibertsitatea sustatzeko nahia adierazten baitute. Modu honetan, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako ingurumeneko espezie ezberdinen ongizatea bermatuko litzateke. Beraz, babestutako landareak moztea eta hondatzea; babestutako animaliak hil, zauritu, molestatu edo heizatzeari; landare edo animaliak garraiatu edo haiekin komertzioan aritzea debekatuko nuke. Debekatutako jardueren zerrenda handitzeaz gain, arriskuan dauden espezie horiek babesteko asmoz, beren sustapenerako neurriak ere ekarriko dira Urdaibaiko legera. Batetik, Urdaibaiko Biosferako itsas eta erreketan arrantza daitezkeen arrainen eta bertako lurretan ehiza daitezkeen animalien zerrenda bat egingo litzateke. Bestetik, arriskuan dauden animalien sustapena bermatzeko asmoz, hazkuntza programak barneratuko lirateke kontserbazio eta ingurumena berreskuratzeko estrategien arloan. Betekizun edo debeku hauek errespetatzen ez diren kasuetarako, Urdaibaiko legedian bertan jasotzen den zehapen erregimena gogortzea beharrezkoa izango litzateke. Horretarako, jarraian EAEko arauditik lortutako ekarpenak aztertzea pasako naiz. Izan ere, neurri eta debeku hauen egikaritzea ziurtatzeko, EAEko Natura Ondarearen Babeserako 9/2021 Legean oinarritu baitut zehapen erregimenari buruz egingo dudan proposamena, zeinak, aztertu berri den Natura Ondare eta Biodibertsitateari buruzko lege estatalarekin antzekotasun handiak dituen.

Hasteko, Natura Ondarearen 9/2021 Lege autonomikoak Natura Ondarearen babespenerako instrumentu ezberdinak solapatzen diren kasuan, horien artean Plan Gidarira egonez gero, gainerako instrumentuek eskaintzen dituzten edukiak bertan bildu beharko direla dio (38.3 art). Beraz, Plan Gidariari lehentasun edo nagusitasun izaera moduko bat ematen dio, eta hau PADAS-era aztertutako legeetatik ekarpenak egiterakoan kontuan eduki beharrezkoa da. Gainera, Urdaibiko Biosfera Erreserba, bere legedi espezifikoaz arautzen dela ere azpimarratu behar da eta arauaren garapena eta eskuduntza banaketa ere, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Babeserako legerari dagozkio (63.3 eta 63.4 art).

Natura Ondarearen lege autonomikoak Urdaibaiko legediari emandako garrantzia ikusita, bertan arautzen den zehapen erregimenetik ekarpenak biltzen hasiko naiz. Natura Ondareari buruzko bi arauen zehapen erregimenak zorrotasun maila handikoak direnez, bertan arautzen diren isunen zenbatekoak Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Babeserako legean biltzea proposatzen dut. Honela, Urdaibaiko legedia errespetatzen ez den kasuetan, arau

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

hauste graduaren arabera, 100 euro eta 2.000.000 euro bitarteko isunak aurreikusiko lirateke. Gainera, gaur egun Urdaibaiko legean adierazten diren isun zigorrak pesetetan adierazita egoten jarraituzen dute, ondorioz, zehapen erregimenean aldaketak biltzeko beharra nabarmen geratuz Isunen kantitate eta adierazteko moduz gain, burututako arau haustek delituak direnean, delitugileari erantzunkizun penala egozteko aukera barneratuko nuke Natura Ondarearen legean oinarrituz.

Zehapen prozedurari dagokionean, hasiera emateaz, instrukzio faseaz eta zehapenaren ebazpenaz foru organoak, arduratuko dira. Baina, legean argi jaso nahiko nuke, Uraibaiko Biosfera Erreserbaren Babesa eta Antolakuntzari buruzko legean arautzen den zehapen prozeduran ere ahalmen zigortzailearen eskuduna EAeko ingurumen arloko saila dela. Beraz, zehapen erregimena nahiz eta Urdaibaiko legean jasoko nukeen, bere egikaritzaz arduratuko diren organoen antolaketa PADAS-eko hogeita-bigarren jardun lerroan bilduko nuke, PADASeko ekonomia eta dinamizazioaz arduratuko diren instrumentuen konfigurazioari buruzkoan.

Natura Ondarearen legeek ez dutenez akzio publikoa aurreikusten, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko 10/2021 Legean oinarrituz, bertan arautzen den akzio publikoaz Urdaibaiko legedian arautzen den xedapena osatzea proposatzen dut, Akzio honek hiritarren parte hartzean duen garrantziagatik, pertsona fisikoei eta juridiko pribatuei edo publikoei Urdaibaiko legea bete dadin galdatzeko aukera ematen baitie. Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Babespen eta Antolaketarako legean, akzio publikoa aipatu besterik ez da egiten, beraz bere edukia Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko legeaz osatzea beharrezkoa iruditzen zait. Honela, Urdaibaiko legeak auzitegi eta administrazioari bere legeko xedapenak bete daitezen galdatzeko aukera aurreikusten die. Baina 10/2021 legearekin osatuz gero, Urdaibaiko eremuan aplikagarria den ingurumen arloko araudi guztiaren betearazpena galdatzeko aukera edukiko lukete hiritarrek. Gainera, ingurumena berritzeko neurriak hartzea eta ingurumenean sortutako kaleengatiko erantzunkizuna ere eskatzea aurreikusten die 10/2021 legeak hiritarrei. Beraz, Urdaibaiko legeko akzio publikora 10/2021 legeak eskaintzen dituen baliabide eta aukerak ekartzea oso garrantzitsua dela deritzot azken ekarpen modura.

**URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA
IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA**

VIII. BIBLIOGRAFIA JURIDIKOA

- DE CARLOS CASTILLO AINHOA “*Principales aspectos de la Ley 7/2022 de residuos y suelos contaminados para una economía circular*” Ingurumen Zuzenbideari buruzko Aranzadi aldizkari digitala, Aranzadi editoriala 2022 urtea (zk.1/2022.)- (1-5 orr.)
- DE ROJAS MARTÍNEZ-PARETS FERNANDO. “*La Ley 42/2007. El estatuto de protección del patrimonio natural y la biodiversidad.*” Ingurumen Zuzenbideari buruzko Aranzadi aldizkaria, Aranzadi editoriala 2008 urtea (zk.14/2008.)(7- 10 orr.)
- EUROPAKO IKERKETA TALDEA. IEZ, *Ingurugiroa eta Zuzenbidea Aldizkaria 2019*, (dok. 79-82or) BI913/2019.
- MARTINEZ VAZQUEZ, Rosa María: “*Economía Azul como fuente de desarrollo en la Unión Europea*”. Gizarte Zientzien Aldizkaria , XVII. alea, 4zk , 2021. <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=28069360002> (Azken kontsulta: 2022/05/03)
- SANTAMARÍA ARINAS RENÉ JAVIER “*El concepto de reserva de la biosfera en Derecho español.*” Ingurumen Zuzenbideari buruzko Aranzadi aldizkaria, Aranzadi editoriala 2013 urtea (zk.25/2013.) (1-33orr.)
- VANESSA PRIETO-SANDOVAL, CARMEN JACA, MARA ORMAZABAL. “*Economía circular: Relación con la evolución del concepto de sostenibilidad y estrategias para su implementación.*” (86-91 orr.). Dokumentua eskuragarri: https://dadun.unav.edu/bitstream/10171/53653/1/Economia_Circular.pdf (Azken kontsulta: 2022/05/04)

IX. BESTELAKO DOKUMENTUAK ETA BALIABIDE ELEKTRONIKOAK

A. Dokumentuak

- Arkitekturaren kalitatearen 121/000086 Lege Proiektua. (I Azken Xedapena). Gorte Orokorren Aldizkari Ofiziala 2021eko urtarrilaren 28a (zk.86-1.)
- CSCAE, Espainiako Arkitektuen Kolegioko Kontseilu Nagusia. *Kulturako ministroen 2018ko urtarrilak 21eta 22ko Konferentzian eindako Davoseko Deklarazioaren bertsio laburtua.*(4 orr.)
- ECOEMBRES. “*Economía Circular en España*” artikulua. Eskuragarri:

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

<https://www.ecoembes.com/es/reduce-reutiliza-y-recicla/economia-circular-en-espana>

(Azken kontsulta: 2022/05/05)

- Europar Batzordeak Europar Parlamentuari, Kontseiluari eta Europar Ekonomia eta Gizartearen Batzordeari egindako komunikazioa (COM (2021) 573 azkena).
- Europako Batzordeak Europako Parlamentuari, Kontseiluari eta Erregio mailako Ekonomia eta Arlo Sozialeko Batzordeari egindako komunikazioa (COM/2019/640) Europako Paktu Berdea (4-17orr.).
- Europako Batzordearen ekonomia urdinari buruzko komunikazioa “A new Approach for a Sustainable Blue Economy in the EU. Transforming the EU Blue Economy for a Sustainable Future.” (COM/2021/2040/final)
- Komisio Europarraren prentsa komunikazioa “*Pacto Verde Europeo: Desarrollar una economía azul sostenible en la Unión Europea* “ buruz. Dokumentua eskuragarri: https://ec.europa.eu/commission/presscorner/detail/es/ip_21_2341
- “*La nueva estrategia de la Unión Europea sobre las zonas rurales: pacto verde, visión a largo plazo y nueva Bauhaus (1)* “ Europar Batasuneko legea, zk 98, 2021eko abenduaren 1ekoa. Europako Bauhaus Berria (23-27or)
- “*La nueva estrategia de la Unión Europea sobre las zonas rurales: pacto verde, visión a largo plazo y nueva Bauhaus (1)*” Europar Batasuneko legea, zk 98, 2021eko abenduaren 1ekoa . Europako Paktu Berdearen atala(8-17 or.)
- “*Programa sobre el Hombre y la Biosfera, 2019-2020*” Dokumentua, UNESCO-ren web gune ofiziala: https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000370519_spa 2019koa (zk.SC-2019/WS/15.)
- “*Urdaibai magazine online*” aldizkariko “*SOS plasticosen el mar*” artikulua https://urdaibaimagazine.eus/wp-content/uploads/2018/05/URD_MAG_13-CAST-v05_webpaginas.pdf (Azken kontsulta. 2022/05/03)

B. Baliabide elektronikoak

- ¿*Qué es la economía azul y que la hace importante en la actualidad?* <https://economia3.com/que-es-economia-azul/> (Azkenkontsulta:2022/05/04)
- Europar Batasuneko webgune ofiziala (Azken kontsulta: 2022/05/03) https://ec.europa.eu/info/strategy/priorities-2019-2024/european-green-deal_es
- Ocean i3 webgune ofiziala: <https://oceani3.com/que-es-ocean-i3/>

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA

- UNESCO-ren MaB Programa.ITURRIA: web gune ofiziala: <https://es.unesco.org/news/dieciocho-nuevas-reservas-ingresan-red-mundial-reservas-biosfera-unesco> (Azken kontsulta: 2022/05/05)
- Urdaibaiko Biosfera Erreserbako webgune ofiziala: <https://www.urdaibai.eus/es/> (Azken kontsulta: 2022/05/04)
- Urdaibaiko webgune ofizialeko PADAS-ari buruzko artikulua: <https://www.urdaibai.eus/es/padas/> (Azken kontsulta 2022/05/01)
- 2021eko maiatzaren 17ko Europar Batasunaren prentsaren komunikazioa. Webgune ofizialean eskuragarri: https://ec.europa.eu/commission/presscorner/detail/es/ip_21_2341 (Azken kontsulta: 2022/05/03)

X. ARAUDIA

- 258/1998 Dekretua (PADAS), Euskadiko Agintaritzaren Aldizkaria 1998ko urriaren 21a (zk.200.)
- Urdaibaiko Biosfera Erreserba babestu eta arautzen duen uztailaren 6ko 5/1989 Legea Euskadiko Agintaritzaren Aldizkaria 1989ko uztailaren 29a (zk. 145.)
- 2007ko azaroaren 13ko 42/2007 Espainiako Natura Ondare eta Biodibertsitatea babesten dituen legea - Estatuko Aldizkari Ofiziala 2007ko abenduaren 14a (zk.299.)
- 139/2016 Dekretua Plan Gidaria, Euskadiko Agintaritzaren Aldizkaria 2016ko azaroaren 28a (zk.226.)
- 2017ko azaroaren 8ko sektorre pubikoko kontratuei buruzko 9/2017 legea. Estatuko Aldizkari Ofiziala 2017ko azaroaren 9a (zk.272.)
- Euskadiko Natura Ondarea Babesteko 9/2021 Legea - Euskadiko Agintaritza Aldizkaria 2021eko abenduaren 10a (zk.246.)
- Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legea - Euskadiko Agintaritza Aldizkaria 2021eko abenduaren 31a (zk.262.).
- Ekonomia Zirkularreko Hondakinen eta Lur Kutsatuen 7/2022 Legea Boletín Oficial del Estado, zk 85, 2022ko apirilaren 9koa.

**URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN KONTSERBAZIOAREN ETA
IRAUNKORTASUNAREN SUSTAPENA**

XI. JURISPRUDENTZIA

- Kataluniako JAN Administrazio Auziko Salako 3.Sekzioak irailaren 19an emandako 657/2016 epaia, Biosfera Erreserbaren ezaugarriei buruzkoa (errekurtso zk. 517/2010)
- 2018ko irailaren 21 eko EAAEko JANren Administrazio Auziko sala, 2. sekzioaren 388/2018 epaia, Plan Gidariaren inpugnazioari buruzkoa (errekurtso zk.65/2017)
- AG Administrazio Auziko Salako 1.Sekzioa 2021eko otsailaren 12ko galtzeko arriskuan dauden espezieen trataerari buruzko 2021/56495 autua (errekurtso zk. 3041/2020)